

Apunteak

**XX. MENDEKO EUSKAL HERRIKO ETA ESPAINIAKO HISTORIA**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Sara Bidarte Begiristain

Soziologiako Gradu bigarren mailako ikaslea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Euskal Herriko Unibertsitatea

2018 – 2019 IKASTURTEA

## BERREZARKUNTZA (1876-1931)

Jarri arreta 1884an moralizazioan, higienismoa eta burgesiak langileengan esaten zutenaren inguruan!

Errestaurazioa 1874an hasi zen Alfontso XII.aren erregealdiarekin, eta 1923an amaitu Primo de Riveraren diktadorearekin. Kontserbadore eta liberalak sistema politikoa ezartzeko, txandakatzen prozesua martxan jarri zuten hauteskundeetan, iruzurra eta jauntxokeria erabiliz. Aldi berean periferiako lurraldeetan kontzientzia nazionalistak garrantzia hartu zuen. Ekonomiari erreparatuz, egoera nahiko zaila zen garai hartan, izan ere, Euskadi eta Kataluniako industriaren susperraldiak eragina izan zuen. Bestetik, nekazariak eta hirietako langileak oso baldintza txarretan bizi ziren, eta langile mugimenduetan antolatzen hasi ziren beraien arazoak eta eskakizunak aldarrikatzeko. Langile mugimenduen, koloniak galtzearen, txandakatze sistemaren aurkako kritiken, Maokoko gerraren eta Primo de Riveraren diktadorearen ondorioz Errestaurazioaren gainbehera eman zen.

Seiurteko iraultzailea bukatzean I. Errepublikak porrot egin zuen, eta ondorioz 1874an Borboien monarkia ezarri zen Alfontso XII.a errege zelarik.

Errestaurazio garaian hiru errege egon ziren agintean:

- Alfontso XII.a (1875 – 1885)
- Maria Kristina erreginaordea (1885 – 1902)
- Alfontso XIII.a (1902 – 1931) → Maria Kristinaren semea zen hau.

Lehen aipatu bezala sistema politikoaren sortzailea Canovas del Castillo kontserbadorea izan zen, eta erregimen honek aurrera eramane zedin hiru sostengu nagusi zituen: 1876ko Konstituzioa, alderdien txandakatze politikoa eta jauntxokeria.

### **1876ko konstituzioa:**

- Konstituzioak erlijioari garrantzia ematen dio, 'por la gracia de diós' esaldiarekin hasten baita. Hauek, 1845eko konstituzio liberala hartuko dute oinarri.
- 11. artikuluan, Kristautasuna ofiziala izango da, hau da, Estatuak diru laguntzak emango dizkio elizari. Beste erlijioei dagokienez, erlijio askatasuna dagoela aipatu arren, ez dute edozein erlijiotakoa izatea onartuko. Beraz, konstituzioan bertan hainbat kontraesan izango ditugu.
- 13. artikuluan dio teoriarik lasai biltzeko askatasuna dutela, Erregeari eta Gorteei beharrezkoa dutena eskatzeko askatasuna... dutela.  
(Baina teoriarik hori esan arren, praktikan ez dira aurrera eramaten)
- 18. artikuluan dio Gorteei Erregearekin batera legeak egiteko askatasuna dutela. Hortaz, Erregeak beti zuen bere iritzia emateko aukera, eta gainerakoek hartutako erabakietan eskuhartzekoa.
- 21. artikuluan aipatzen da Erregearen oinordekoek herriak nahi duena alde batera utzita senatari izateko eskubidea dutela.
- Sufragio zentsitarioa zegoen, hau da, botoa emateko eskubideak botere ekonomikoarekin lotura zuzena zuen. Beraz, herritar guztien ekonomia mailari erreparatuta ez zuten denek botoa emateko eskubiderik. (27. artikuluan)

Canovas del Castillo eta Alfonso XII.a izan ziren garai honetako buruak Sagastarekin batera. Erregea eta Gortea ziren subiranotasunaren jabe.

### ***Txandakatze politikoa:***

Canovasek diseinaturiko erregimen politikoa zen nagusi, zeinak, indar politikoen adostasuna lortzea zuen helburu. Garai honetan, bi alderdi politiko zeuden indarrean:

- Liberal kontserbadoreak (Canovistak): sufragio zentsitarioa, autoritarismoa, ordenaren premia, adierazpen askatasunari mugak...
- Liberal aurrerakoiak (Sagastaren jarraitzaileak): progresistak, demokratikak, errepublikazaleren bat. Sufragio unibertsala eta erregimen irekiagoa.

Gobernuaren hautaketa erregeak egiten zuen arbitrarioki, eta ondoren, Gorteak osatzeko hauteskundeak egiten ziren.

Garai honetako alderdiak; kokapen ideologikoaren arabera (ezkerretik eskubira): sozialistak eta errepublikarrak, liberal progresistak, liberal kontserbadoreak, karistak/tradizionalistak, alderdi nazionalistak.

### ***Jauntxokeria:***

Txandakatze sistema aurrera eramateko nahitaezko oinarria . Erregeak hautatutako gobernuko alderdia atera behar da irabazle; beraz, hauteskundeetan manipulazioak izaten ziren, botoen erosketak kasu.

Garai honetan aipatzeko beste kontu bat litzateke **Alfontso XII.aren erregetza** (1902 – 1931).

### **Espainiaren egoera ekonomikoa + langile mugimenduaren hastapenak**

Garai honetan bereganatu zuen burgesiak bere botere politiko eta sozial berria.

Proletarizazioa prozesua eman zen; Bizkaian kasu. Gainera, aipatu lehenengo langile elkarte eta alderdiak anarkistak, errepublikarrak eta sozialistak zirela.

### **‘Cuestion social’ edo ‘klase borroka’:**

Espainiar estatutik kanpo II. Industrializazioaren ondorioz, ekonomiak garapen handi bat izango du, eta honek eragin zuzen izango du Espainian.

Estatu liberalaren ezarpenari zenean hainbat industria ezarri ziren, Bilbon (Ezkerraldean) esaterako. Beraz, honek pentsamendu aldaketa bat ekarri zuen.

Gainera, aipatu beharra dago garai honetan nagusiak eta langileak erabat bereizten direla, eta bereizketa honetan nagusia da langileen gaitetik dagoena, eta langilea nagusiak dioena egitera kondenatuta dago.

Hemen aipatu beharra dago Marxek bere irakurketa egin zuela, eta irakurketa honetan kapitalismoaren aurkako jarrera bat azaldu zuen.

Funelli bakuninistak Espainian anarkismoa ezarri zuen, eta Bartzelona eta Madril gisako hiriek garrantzia hartu zuten, baita Euskal Herrian Bizkaiak (Bilbo Handiak) ere.

### ***Anarkismoai:***

Italiatik etorritako korrante ideologikoa. 1874.urtean “LNE” sortu zen baina kantonalismoaren erruz klandestinitatera pasa behar izan zuten. Sagastarekin 1881.urtean lehen elkarte anarkista sortu zuten. Pixkanaka mugak jartzen hasi zizkioten eta Andaluzian burututako *Mano Negra* erakundearen ekintzaren ondorioz estatuko elkarte anarkista guztiak illegalizatu zituzten.

Ideologikoki sindikalismoa babesten dute. Hala ere, batzuk, iraultzan zentratzen diren bitartean: besteek, langileen borrokari eutsiko diote. XX. mendean CNT sortuko dute, sindikatu anarkista izango dena, Haien tresna nagusia grebak ziren, askotan biolentzia erabili arren.

Hego Euskal Herri mailan anarkismoak ez du indar handirik izango. Hiriburuetan agertuko da, baina bi eremutan nagusituko da: Erriberan eta Erreterian.

*Sozialismoa eta marxismoa:*

Marxen suhiak Espainiaratua. 1879an sortuko dute alderdi sozialista Pablo Iglesiasen eskutik. 1888.urtean sortuko dute lehen sindikatua UGT deituko dena. Hauteskunderi eta estatuko agintea lortzeari garrantzi handia emango diote. 1910.urtean lortuko dute parlamentuan sartzea errepublikarrekin batera.

**\*** Hego Euskal Herriari erreparatuta, gune oso industrializatua zenez etorkinen uholde bat egon zen. Denbora laburrean paisaia aldatu zen; langile auzoak, herrixkak, barrakoiak, kintinak...

Historiaren esparruan emozioak oso garrantzitsuak dira. Aipatu beharra dago nazka oso garrantzitsua dela.

### **Langileen egoera/mugimendua burgesiaren ikuspegitik**

Marxistek zioten langileak elkartu behar zirela beraien eskubideak borrokatzeko. Proletarizazio prozesu bat gertatu zen. Langileak beraien eskubideak aldarrikatzeko esaten zuten egoera hau klase borroka zela baina burgesek auzi soziala dela esango dute. Hau da, burgesak eta liberalak esango dute hau arrazoitzeko esango dute karitatea dagoela eta hori ez zen izango klase borroka. Langileak berriz esango dute klase borroka egongo dela legeak beraien alde jartzekeo. Auzi soziala: nola definitzen zen langileek zuten arazoak burgesiaren aldetik.

Aipatu beharra dago liberalak boterean zeudela, eta oposizioko botere faktikoa errepublikanoek, karlistek, intelektualek... zeukaten.

### **‘Comisión de Reformas Sociales ‘:**

Burgesiak Gumersindo de Azkarate buru zuen komisió bat sortu zuen. Parlamentuko komisió bat izan zen 1884an sortu zen, eta burgesia komunista izan zen berauren sortzaile. Hauek inkesta bat egin zuten Espainian, zeinetan, bizitzaren inguruko hainbat galdera plazaratu ziren; maila ekonomikoaz, denbora libreaz... zihardutenak, hain zuzen ere. Internazionalistek garai honetan emango dute oposiziorako saltoa.

Garai honetan, burgesia ez zegoen oso eroso. Komisióak ikusi zuen eurak asko zirela, eta indarra zutela. Beraz, hori baretzeko idatzi zuten artíkulu bat irakurri dugu.

*Testua: ‘Real decreto por el que se crea la Comisión de Reformas Sociales’ eta ‘Comisión de reformas sociales (1884)’*

*“No era posible prolongar esta situación sin menoscabo de la paz pública. Numerosos síntomas revelan que las clases obreras sienten el vivo estímulo de las necesidades que importa remediar, o aliviar cuando menos, a la vez que siente el capital inquietudes justificadas por hondas y continuas perturbaciones. (...), habría motivos para temer que las corrientes, hasta ahora pacíficas, por donde va encauzándose este movimiento, torcieran su rumbo de suerte que los males conocidos se agravasen con todos aquellos otros a que da origen la violencia, e*

*hicieran así precaria la paz y las relaciones entre los dos grandes factores de la producción: el capital y el trabajo”.*

Testua: Castillo, Santiago: Reformas Sociales... Tomo II, p. 274 y 289

*“La ignorancia casi absoluta es su patrimonio, y embotado el sentimiento y desarreglada su voluntad, ofrecen un conjunto de carácter semisalvaje y primitivo (...)su sistema nervioso dispuesto todo exceso o un sentimiento de semiidiotismo que las incapacite para todas las relaciones individuales y sociales (...) padres e hijos, (...) necesitan libertarse de la ignorancia, origen de su miseria”.*

### **Higienismoa:**

Higienismoa medikuntza arloko mugimendu bat bazen ere, liberalismo garaian medikuntzak eta politikak bat egin zuten.

Langileen bizi eta gorpu egoera kritikatzeko zuten helburu. Beraz, medikuntzaren ‘objektibitatea’ egokia zen liberalismoak bere helburu moralizatzaileak zabaltzeko.

Gainera, garai honetako bizi itxaropena oso baxua bazen industrializazioaren garaian oraindik baxuagoa, hauen bizi baldintzak penagarriak zirelako

Hortaz, Bizkaian industrializazio garaian bizi itxaropena oso baxua zen. Sestaon, esaterako, 1890eko hamarkadan bizi itxaropena 16 urtekoa zen.

Aurreko egoera ikusita eta medikurik ez zutela ikusita jendeak beldurra zion gaixotzeari. Ez baitzeuzkaten egun dauzkagun baldintzak.

Liberalismoak eta medikuntzak bat egin zuten. Gaixorik zeuden horiei inmoralak zirela sinestarazten zieten, hau da, gaixorik egote hori euren errua zela aipatzen zieten, bizi ziren etxeei, tabernei, eta lekuei arreta jarritz.

Hortaz, aurretik aipatu bezala, euren inguruek ez zuten inolako garbitasunik. Beraz, halakoak ziren beren inguruko hainbat esparrutako egoerak:

- Etxeak: (Madrilen) Langileen etxeak ez daude garbiak, bertan bizitzeko baldintzak ez dira betetzen. Bertan sartu eta bizitza eta osasunerako arriskutsuak diren elementu ezberdinak topatzen dira nonahi. Itxiak, usai txarrekoak, argitasun falta...

*“Los barrios de Madrid donde preponderan los obreros carecen de limpieza, de higiene y de toda clase de condiciones para ser habitados, sin dejar de hallarse en continuo peligro la salud y la vida de sus moradores (...). La difícil renovación del aire mantiene en los reducidos cuartuchos un hedor que penosamente pueden sufrir los que no se han hecho insensibles a las impresiones del olfato por su larga permanencia en tan pobres cuchitriles; y la mala iluminación favorece los descuidos, permitiendo que reine en la generalidad una falta de aseo poco agradable”.*

Castillo, Santiago: Reformas Sociales..., Tomo II, pp. 70-71

- Etxeak Bizkaian: Norberaren garbiketa zaindugabea da, osasun baldintza onetan egotetik oso urrun dagoena. Langileak horrelako egoeretan hazi direnez ez dute garbiketaren

kontzientziarik, hau da, osasuntsu egoteko garbitasunean eman behar diren pausoak ez dituzte askok ezagutzen.

*“la limpieza privada también está bastante descuidada, distando mucho de llenar las condiciones sanitarias necesarias para la buena salud; la poca instrucción de algunos de estos habitantes, hace que no den importancia ni se cuiden para nada del aseo y limpieza”. Vergara García, Eugenio. Datos para la Topografía Médica de San Salvador del Valle. Baracaldo: Imprenta de Bonifacio Guzmán, 1904, p. 153.*

- Taberna: Tabernak pozoinduta daude. Giroa petraldua dago, edaria eta atmosferak delinkuentziara bultzatzen zaitu eta hitz bakoitza iraina da. Taberna barrutan soilik borrokatzeko giroa dago.

*“en el local de la taberna hay algo que ofende y predispone al delito; la atmósfera cargada de toda clase de emanaciones forma una densa niebla que oscurece los sentidos y a medida que penetra en los pulmones embota todo sentimiento noble; las blasfemias, las injurias, las interjecciones brutales flotan azotando el rostro, la voluntad se enardece; la palabra proferida casi siempre con acento grosero es un latigazo. A medida que las libaciones se suceden, los instintos se exaltan: se bebe veneno y se respira veneno. En esos momentos el amortiguado agravio se aviva, el instinto matón del pueblo domina a todo sentimiento; cada mirada es un reto, la palabra un ataque, toda contestación toma forma de navaja. La permanencia en el local es un albur de vida o muerte”.*

*Gimeno y Azcárate, Manuel. La criminalidad en Asturias. Estadística (1883-1897). Oviedo: Escuela Tipográfica del Hospicio, 1900, pp. 52-53.*

### **Kolera izurritea Bizkaian (1884):**

Kolera uraren bitartez zabaltzen den gaixotasuna da, eta zituzten bizi baldintzak kontuan izanda nahiko ohikoa zen honelakoak izatea. Beraz, izua nagusitu zen gizartean, inork ez zuelako halako gaixotasunik izan nahi.

Gainera, gizon batek honakoa zabaldu zuen: ‘personas, las más robustas y de una salud completa, (...), caían en las calles y en las plazas como herdas de un rayo, y morían a centenares en los portales y tiendas’

Gaixotasun hau ez zen batere erakargarria eta horregatik, nazka nagusitu zen. Bere sintomak oso ikusgarriak ziren, eta honek alerta pizten zuen.

### **Testuak:**

- *“la línea de inspección acordada por todas las autoridades para evitar la propagación de la epidemia que reina en algunos pueblos del Oeste de Vizcaya ocupará un perímetro de 45 kilómetros desde el extremo del río Cadagua a Somorrostro, pasando por Santurce, Las Carreras, Pucheta, Las Cortes, Regato, Santa Agueda, Castrejana, Burceña y Luchana”.*
- *La inspección de los viajeros “durante siete días”, y la prohibición de “el paso de una a otra orilla de la ría” completan las medidas tomadas, cuyo cumplimiento se encargan de guardar los regimientos militares y otros guardias.*

ENB, 31-10-1885.

- *“viendo la junta de Sanidad del valle de Oquendo la aproximación del terrible huésped del Gánges en el pueblo de Sodupe, distante dos kilómetros, y el continuo tránsito por que allí se hacía de los emigrados de las minas de Somorrostro, (...) resolvió un día por unanimidad de votos acudir al señor diputado (...) pidiendo un par de millones para guardar el primer pueblo colindante (...), sin pérdida de tiempo ha mandado dichos dos millones” ENB, 6-11-1895.*
  
- *“La explicación de que el cólera haya aparecido en nuestra zona minera: por una parte las condiciones higiénicas en que vivía la numerosa población de la zona minera eran detestables ... era público y notorio que cada día llegaban a aquella zona sin estas precauciones gentes que venían de la Rioja, de Aragón, de la provincia de Soria y de otras provincias donde el cólera causaba estragos... la epidemia se manifestó simultáneamente en la zona minera y en Baracaldo, que está al pie de ella, siendo víctima en la segunda localidad una mendiga que había estado en comunicación con la primera”.  
“Causa de un triste efecto” ENB, 27 -10-1885.*
  
- *“por aquel camino pasan numerosas bandadas de trabajadores de las minas de Vizcaya, algunas de las cuales ha cometido atropellos en el tránsito. Uno de ellos ha sido, según noticias, el haber pedido de comer y beber a un honrado vecino de una casa aislada, y viendo que no accedía a su petición, coger un gran madero entre varios y en forma de ariete golpear la puerta de entrada de la casa para derribarla. En vista de tan expresivas insinuaciones, el pobre vecino se apresuró a echarles por la ventana lo que tan suavemente pedían, marchando los conquistadores tan campantes. Mucha vigilancia y aun alguna fuerza armada, se necesitará, según creemos, para poner coto a esos grandes grupos de obreros que hoy quedan sin trabajo, y por consiguiente en la miseria”.  
ENB, 3-11-1885.*
  
- *Reglamento de Policía e Higiene que debe regir en la zona minera o sea en los municipios de Baracaldo, Sestao, Portugalete, Santurce, San Julián de Musques, Galdames, San Salvador del Valle y Abanto y Ciérvana. Imprenta provincial. Bilbao. 1886.*
  - *7. “las personas de sexo distinto no podrán ocupar el mismo cuarto excepto los matrimonios y los padres con hijos menores de 10 años”*
  - *8. “tampoco ocuparán el mismo dormitorio más de un matrimonio, debiendo establecerse siempre entre los cuartos de dormir, tabiques sólidos y a una altura conveniente”.*
  - *9. “no se permitirán más de dos personas en una misma cama”.*
  - *50. “igualmente se prohibirá poner a secar en las calles y caminos públicos, trapos y toda clase de ropas que moleste o ensucie a los transeúntes”.*
  - *51. “no se permitirá hacer públicamente aguas mayores o menores fuera de los sitios señalados. A este efecto se invitará a los Ayuntamientos Mineros e Industriales a que construyan dentro de su jurisdicción respectiva, urinarios y retretes en buenas condiciones, debiendo tenerlos en buen estado de limpieza”.*

## Langile mugimendua Bizkaian

1876an industrializazioari emango zaio hasiera Triano – Somorrostro eremuan zenbait meatze konpainia eratuz; Luchana Mining, la Orconera eta Franco – Belga besteak beste. Baina Bizkaiarentzako oso garrantzitsua izan den Altos Hornos de Bilbao 1882an sortu zen.

1886an sortu zen PSOE (Partido Socialista Obrero Español), Euskal Herriko lehen klase alderdia izan zena, Bilbon. Facundo Perezagua, Felipe Carretero eta beste batzuk sortu zuten.

1890ean, berriz, greba egin zuten bai meatzariak bai sozialistek.

Aipatu beharra dago, **meategien bizi eta lan baldintzak** oso gogorrak zirela.

‘Truck – system’ izeneko filosofia (*truke sistema*) zeramaten aurrera, zeinetan, enplegua izateko, langileak langile-buruarekin akordio batera iritsi behar zuten; bertan, lo egiteko eta jateko lekuak adosten ziren. Langile-buruak komisioko bat jasoko zuen, eta gastu hori langileen soldatetatik deskontatzen zen.

*Janaria*, berriz, ustela zegoen, eta (*etxebizitzak*) barrakoietan bizi ziren, non bizi-baldintza oso gogorrak izan ohi zituzten; esaterako, euria zirrikitu guztietatik sartzen zen.

- *“Cómo había de ser fácil la vida al obrero minero? En unas, a cambio de una parte de su jornal, se le proporcionaban los comestibles adulterados, los géneros pútridos que rechazaba la ciudad; en los otros, a cambio de un petate maloliente, empiojado y un hueco en uno de los barracones, por cuyas mal cerradas junturas se colaba de rondón el cierzo y la lluvia en invierno, se le desposeía de los últimos céntimos. Era una inicua explotación organizada por los capataces y consentida por los patronos que colocaba al obrero minero en condiciones de vida inferiores a las del último irracional”.*

*(Julián Zugazagoitia: Triconomía obrera. El Liberal 20-08-1922).*

## GREBAK:

Bi une oso garrantzitsu aipatu beharra dira garai hau ulertu ahal izateko. Batetik, maiatzaren lehenengoko greba; eta bestetik, aurrerago maiatzaren 16ean egin zena.

- **1890eko maiatza: Langile Eguna eta greba** <sup>1</sup>

1890eko maiatzaren 4an: Langile Eguna ospatu zuten, eta 1890eko maiatzaren 15ean, berriz, meatzetan greba egin zuten. Greba hau zabaldu egin zen.

Greba hau oso garrantzitsua izan zen EHko modernizazioari hasiera eman zitzaiolako. Ordurarte, karlistak, errepublikanoak... aurki genitzakeen, nahiz eta hauek moderno izan ez ziren XX. mendekoak bezain modernoak.

### **Langile eguna, 1890**

- Liberalismoaren kontrako jarrera
- II. Internazionala adostuta (1889); hemen bildu eta urteko ekintzak adosten zituzten.

---

<sup>1</sup> ‘La Gran Huelga Minera de 1890’ – Ricardo Miralles (TESTUA)

Garai honetan adostu zuten langile mugimenduaren eguna adostu beharra zela. (Maiatzaren 1a) Baina lehen aldiz maiatzaren 4an ospatu zuten igandea zelako, eta beldur zirelako langile mugimenduaren indar faltagatik jendea ez azaltzeaz.

- Bilbon Alderdi Sozialista izan zen festa hau bideratu zuena, bera baitzen zegoen alderdi bakarra.
- Lehenengo aldiz lanbide guztiak bateratuta zeuden.  
Langile bakoitzak bere aldarrikapenak egiten zituen bere gremioaren inguruan, baina hemendik aurrera gremioak alde batera utzita denak bateratuta borrokatzen hasi ziren. Hortaz, ideia honek langile batasuna adierazi zuen.
- 4.000 langilek baino gehiagok parte hartu zuten (Bilboko langileak eta mehatzetan zeudenak)
- Manifestazio baketsua: antolatzaileek 'cordura y sensatez' eskatzen zuten.  
Hauek ziren aldizkari sozialistetan errepikatzen ziren hitzak.
- *'los parásitos de la sociedad (la buguesía) tiemblan de espanto ante las pacíficas manifestaciones de los trabajadores del mundo civilizado'*. ES, 23-5-1890.  
Manifestazio horien bitartez langileak burgesiak dioena ez direla aldarrikatzen saiatzen dira. Beraz, bi alde bereizteaz arduratzen dira.
- *'Nuestra obra es una obra del progreso, de civilización'*  
Beren ustez eurek egiten duten guztia etorkizunera begirakoa da.

Emakumeek ez dute langile mugimenduan subjektu politiko gisan parte hartzen, gizonak soilik hartzen dute bertan zer esana. Emakumeek diote esklabuak zirela eta hezkuntzarik ez zutenez ignorante hutsak zirela. Beraz, garbi geratzen da langile mugimenduan genero ezberdintasun handia dagoela.

Arratsaldean milaka langile bateratu zituen han, eta bertan mitina egin zuen. (Testua; mitinean aipatutakoa)

### **1890eko greba**

Maiatzaren 13an greba hasiko da. Honako arrazoi hauek direla medio emango zaio hasiera grebari: batetik, langile baten kaleratzea oso erraza zenez, langileak bota eskubidea kenduko zieten. Bestalde, maiatzaren 4ko greba zela eta hainbat langile kaleratuak izango dira, eta hau zela eta hainbat langile nagusiengana hurbildu eta hauek bueltatzen ez baztuzten eurak ere grebara joango zirela aipatu zuten.

- *'decíase (sic) aunque los que indicaron la huelga fueron algunos trabajadores que habían sido despedidos de las canteras por haber formado parte en la manifestación obrera del día 4 del corriente'*
- *'Cuando los demás trabajadores se enteraron de la injusticia (los despedidos) cometida por el Sr. Maclena (sic), se presentaron a él y le dijeron que no volvían los compañeros despedidos o ellos abandonaban la mina. El propietario contesto negándose (...). Entonces estallo la huelga'*

Ugazabek ez dute langileekin hitzik egin nahiko. Milaka langile grebara doazelako, eta graba hauek gero eta gehiago zabaldu direlako. Beraz, langile guztiak batuko dira, eta grebari ekingo diote.

- *'los huelguistas acuerdan dirigir una exposición a los patronos y al alcalde con sus reivindicaciones, pero los patronos se niegan a recibirlos' ENB*

### **Elkarkidetasuna, langileak bateratzeko modu bat**

- Testua (1890-5-19)

Mugimendu politiko batentzat garrantzitsua da *elkartasuna* izatea, laguntzen ez baduzu gainontzekoek zu ez zaituztelako lagunduko. Gainera, elkartasun honek irudi ona emango du, eta ahal mugimendua handituko da. Elkartasun jarrera bat izan ezean gainontzekoek taldetik botako zaituzte, ez duzulako taldeak defendatzen duen horren alde egiten.

Elkartasun hau langile esplotatuen artekoa izan beharra zen, eta ez zuten euren egoeran ez zegoen beste inor onartzen. Beraz, talde handi gisa definitzen ziren, eta nazionalitate eta arraza berekoak ziren. Gainera, garai honetan nazionalismoa oso indartsu zegoen.

Langile mugimenduaren ideia orokorra mundu osoko mugimendua izatea da, eta hala izan ezean ez da martxan jarriko. Beraz, langile mugimenduaren helburua ez da gremio arteko elkartasuna, mundu osoko langileen elkartasuna baizik.

### **Langile mugimenduaren hainbat elementu: Testua (ENB, 1890-5-15)**

Diote eurek esklabuak direla baina ez dutela esklabu gisa bizitzeko inolako intentziorik. Testuak orain arte ikusitako ideak laburtzen ditu, arrazionalitatea, elkartasuna...

### **Grebaren aldarrikapenak: aldarrikapen ofizialak Testua (LL, 1890-5-16)**

Langile Mugimendua politikan sartu beharra du. Beraz, alderdi bat osatu zuten. Hortaz, talde bat sortu eta langileen bozeramaileak sortuko dira. Hauek honako baldintza hauek eskatuko dituzte:

- Lan orduan gutxiagotzea eskatzen dute
- Lanak murriztea, askotan lanak ematen zieten eta hori bukatzean joaten ziren. Hori lau ordutan bukatzean berdin irabaziko du eta horrela konpetitibitate handia sortu zuteN
- Kaleratuak izandakoak bueltatzea

### **Elkarkidetasuna langileen artean**

Meatzariak fabriketan zeudenei honakoa aipatzen zieten; eurak alde batera uztea traizioa zela, eta ondorioz langileek lantegiak utzi eta alde egin zuten.

- *'nosotros estamos muy satisfechos (con los salarios). Trabajamos menos tiempo que los demas obreros, tenemos libres las tardes de sábados y nuestros jornales son crecidos, pero tenemos espíritu de compañerismo y defendernos los derechos de nuestros hermanos de las minas'*

## **Ugazaben iritsia**

Burgesak langileen greben beldur ziren indar handia zutelako, baina ordura arte ez zen inlako biolentziarik ikusi. Hala ere, manifestazioa kontrolatzeko ejertzittoa ekarri zuten.

- 'El movimiento huelguista, que en pocas horas a tomado probocaciones un tanto alarmantes, a causa de los muchos manifestantes y de su actitud poco tranquilizadora'. LL, 1890-5-15

Garai honetan langile mugimendua ez zen guztiz legala; beraz, hainbat arazo izan ziren garai honetan langile mugimenduaren inguruan zebiltzanen inguruan. Hemen greba apurtu zutenak ez ziren langileak izan, patronala baizik. Meategi horretako ugazabak egunak murriztuko zituela eta langilerik kaleratuko ez zuela esan zuenean.

- *'nos consta que algunos mineros, entre los que se cuenta nuestro amigo el señosr Martínez de las Rivas, se hallan conformes con todas las peticiones excepto la última, que verdaderamente resulta inadmisibile, pues no puede exigirse a un dueño de mina que vuelva a recibir a los obreros que haya expulsado'*

Bilboko alkateak dio egoera ez dela horren muturrekoa, mehatzetan bizi direnak ez direla horren gaizki bizi.

## **Loma ituna eta grebaren amaiera**

Loma generala general liberal bat izan zen azken karlistadan parte hartu zuena. Loma Bilbora etorri zenean eta langileen egoera ikusi zuenean esan zuten barrakoi horietan langileek ezin zutela lo egin, eta hala meatzariei arrazoia eman zien.

Lomak hitzarmen bat egin zuten, Patronalari langileei beren eskubideak eman ezean bera bere ejertzitooarekin joango zela esan zion, eta hala, Patronalak eskubideak eman zizkien langileei. Orduak murriztea, nahi duten lekuan lo egiteko eskubidea eta janaria nahi duten lekuan erosteko aukera kasu.

**XIX. mendearen amaiera** → Europaren kasuan, Berlingo konferentzia.

## EUSKAL NAZIONALISMOA

XIX. mendearen amaieran (1895ean) Sabino Arana Goirik sortu zuen Euskal Nazionalismoa. Euskal Nazionalismoaren alderdi nagusia EAJ (Eusko Alderdi Jeltzalea) zen, eta euren leloa honakoa zen; JEL (Jaungoikoa eta Lege Zaharra). Ideologia kontserbadorea, klerikala, tradizionalista eta independentista zuten.

### - **Sabino Arana Goiri (1865 Abando – 1903 Bilbo)**

Bere familia karlista zen. Urduñako jesuiten eskolan egin zuen batxilergoa, eta bere hezkuntza oso erlijiosoa izan zen. 18 urterekin Bartzelonara joan zen unibertsitateko ikasketak egitera, baina ez zituen unibertsitateko ikasketak sekula amaitu.

1882an bere anaia Luisek bere aberria Bizkaia zela ikusarazi zion. Beraz, urte honetan euskara ikasten hastea erabaki zuen. Hamar urtetan zehar Bizkaiko historian arakatzeko aritu zen, eta 1892an *‘Vizcaya por su independencia. Cuatro glorias patrias’* izeneko euskal nazionalismoaren sortze agiria idatzi zuen, zeinetan, Bizkaian gertatu denaren azalpena egiten den. Liburuan historia eta elezaharrak bateratzen dira; Erdi Aroan Bizkaia Leonen eta Gaztelaren aurka izandako lau gerra (hiru apokrifoa eta bat errealak) kontatzen dira. Liburuaz gain, bi antzerki obra ere idatzi zituen; *‘De fuera vendrá...’* (1898) eta *‘Libe’* (1903)



Euskadi aldizkariaren zuzendari ere izan zen, eta baita ikurrinaren sortzaile ere. Aipatu beharra dago 1895ean EAJ alderdia sortu zuela.

### **EAJren faseak**

Sabino Arana Goiri hil aurreko EAJ alderdiaren faseak honakoak dira:

- 1) Sorrera garaia
- 2) Lehen epea (1895-1898)
- 3) Bigarren epea (1898-1902)
- 4) Aranaren azken fasea (1902-1903)

#### • **Sorrera garaia**

Sorrera azaltzeko zenbait ideia, zeinak, sorreran EAJren sorreran garrantzia handia izan zuten:

- 1) Espainiar prozesu nazionalizatzailearen ahultasuna.
- 2) Literatura foruzale erromantikoa.
- 3) Gerra karlistak. Azken karlistada lehen pertsonan bizi izan zuen.
- 4) XIX. mendearen azken laurdeneko industrializazioa Bizkaian.
- 5) Modernizazioa eta pentsamolde aldaketaren aurkako jarrera, hau da, EAJ alderdia modernizazioaren aurka zegoen.
- 6) Immigrazioa zen Aranaren kezkarik nagusia

EAJ sortu aurretik zenbait mitin egin zituen; horien artean Larrazabalgo hitzaldia (1893).

## 15. Larrazabalgo hitzaldia (1893)

Hamazazpi urte bete arte karlista izan nintzen ni, gure aita karlista izan zelako, Erljioa eta Foruak lemaren alde bakarrik lan egin zuen karlista izan bazen ere, eta, azkenean, gure askatasunen hondamendiagatik minak hilobira eraman zuena... Baina lauogeita bigarren urterako nire anaia izatez bazen bizkaitar nazionalista; nik, berriz, nire karlismoa *per accidens* defendatzen nuen... Bizkaia Espainia ez zela konbentzitzeko hainbeste frogak historiko eta politiko aurkeztu zizkidan, non nire gogoa aldi batean zalantzan ibili zen eta azkenean hitzeman nion, burua eta bihotza lasai, Bizkaiaren historia ikasiko nuela eta egia tinko eutsiko niola...

Lehen egunetik hiru eginbehar agertu zitzaizkidan begien aurrean; nire aberriaren hizkuntza, zoritxarrez niretzat guztiz ezezaguna, honen historia eta honen legeak ikastea; eta bigarrena, Gramatika bat argitaratzearen bidez, Euskaraz ez zekiten aberkideei ikasteko bidea helaraztea, eta, liburu batzuen eta egunkari baten bidez, aberriaren historia eta politika irakastea; eta lan guzti hauen sintesi moduan, arrokuntza erazte eta abertzaletasuna ezartzea...

Liburuxka batzuk eta "*Bizkaia bere Independentziaren alde*" obratxoak dira orain arte lumarekin idatziz argitaratu eman dudak guztia... Elkarte nazionalista oraindik ez dago eratuta... Barkatu beharko didazue hizkuntza arrotzak berba egin dizuedana.

Hasiera batean bere biografia kontatzen du. Erljioaren alde zegoen familia batean hazitakoa da, eta bere lema nagusia foruak dira. Baina bere anaia nazionalistak Bizkaiako historia ikastera animatuko du, eta hala Bizkaiaren historia irakurtzen hasi zen.

### • **Lehen epea (1895-1898)**

Bere hainbat testutan oso erradikal agertu zen Espainiaren kontra. Beraz, antiespainsutasuna defendatzen zuen Nazionalismoa Espainiaren aurka zegoelako, Euskadi jasaten ari zen gaitz guztien erruduna zela defendatuz.

Autonomiaren kontra eta independentziaren alde agertu ziren.

Erljio integrismoa zen nagusi, eta erlijioa eta politika guztiz nahasten zituen: 'Bizkaia, Espainiaren mende, ezin da katolikoa izan praktikan'

Tradizioa zen nagusi, hein handi batean Sabino Aranak modernizazioari eta hirigintza prozesuari uko egiten zuelako.

Sabino Aranak, 1892an, bere ideologiaren formulazio batzuk idatzi zituen Labeja aldizkarian "Bizkaia por su independencia". Aranak bertan idatzitakoak hiru zutabe ditu:

1. Euskal arraza
2. Foruak: foru guztiak berriro ere indarrean jartzeko aldarrikapena egiten zuen. Horrela, independentzia lortuz.
3. Erljioa

Hastapen hauetan, Aranak egiten dituen adierazpenetan Bizkaia soilik hartzen du kontuan eta pixkanaka gainerako lurraldeetara zabalduko den proiektua izango da.

Sabinoren iritziz, euskal lurraldeak federazio beaela antolatzea zen egokiena, horrela bakoitzak bere foruak instituzioak eta izaera mantenduko luke. Aldi berean, interes komunak zaintzeko beharra ikusten du, eta horregatik konfederazioa ere onartuko luke.

1894an sortu zuten Bilbon lehenengo Batzokia, eta baita Bizkaitarra izeneko egunkari bat ere.

1895.urtean alderdia sortuko dute. Eusko Alderdi Jertzalea. Honekin batera alderdiaren zuzendaritza sortu zuten.

Ideologia horren ezaugarri nagusiak:

- Bizkaia eta ondoren Euskal Herrira zabalduko du nazio kontzeptua; nazioa izateko beharrezko elementuak baiditu: arraza, hizkuntza, legeak, izaera + ohiturak, nortasun historikoa.
- Eta nazio guztiek independentzia lor dezakete estatu zapaltzailearen aurrean
- Foruak, lege zaharrak, lege nazionalak dira eta nazionalismoa berrindartzea lor dezaten aukera bakarra
- Kapitalismoa kritikatu dute, ustelkeria eta ustiapenagatikan. Baina era berean sozialismoa kritikatu dute euskal tradizioaren aurka egiten duelako, euskaldunentzat doktrina hori arrotza baitzen, atzerritarrek ekarritakoa. Liberalismoa ere kritikatu dute, hau atea baita eta euskaldunen kontra dagoen sistema bat da.
- Eliza eta estatua banatzearen alde daude. Elizak estatuak baina botere gehiago hartzen duelarik.

- ***Bigarren epea (1898-1902)***

Bigarren epe honek Espainiar hondamendiarekin Kuba eta Filipinaren arteko gudarekin egingo du bat, eta honek nazionalismo periferikoak indartuko ditu.

1898an 'Sociedad Euskalerrria' EAJn sartuko da, zeina, Ramón de la Sota ontzizabeak zuzentzen zuen (euskalerricos). Ekintza hau dela medio burgesia EAJn sartuko da.

1898an Sabino Arana probintzia diputatu aukeratu zuten Bilboko barrutian, eta honek alderdian pragmatismoa sartzea eragingo du. Hemendik aurrera EAJn bi sektore nagusituko dira: batetik, Aranista erradikalak eta bestetik, euskalerrizale (euskalerricos) moderatuak.

- ***Aranaren Azken fasea (1902-1903)***

Aranak Euskadiren independentziari uko egin zion, eta Espainiako Estatuaren batasunaren barruan autonomia ahalik eta erradikalena jarri zuen helburu politikotzat.

Garai honetan Aranak EAJ desagertzea eta bere ordez 'Euskal Espainolisten Liga' sortzea proposatu zuen. La Patria aldizkarian argitaratu zuen alderdi berriaren programa.

Arana 1903an hil ondoren, euskal nazionalismoak erabat mitifikatu zuen beraren irudia.

Aranaren pentsamendua:

- Integrisimo erlijiosoa
- Tradizionalismoa
- Modernitatearen kontra

Testua:

V

Por el tipo, el carácter y las costumbres ¿es español el bizkaino?

La fisonomía del bizkaino es inteligente y noble; la del español es inexpresiva y adusta.

El bizkaino es de andar apuesto y varonil; el español, o sabe andar (ejemplo, los quintos) o, si es apuesto, es tipo femenino (ejemplo, el torero).

El bizkaino es nervudo y ágil; el español es flojo y torpe.

El bizkaino es inteligente y hábil para toda clase de trabajos; el español es corto de inteligencia y carece de maña para los trabajos más sencillos. Preguntádselo a cualquier contratista de obras, y sabréis que un bizkaino hace en igual tiempo tanto como tres maketos juntos.

El bizkaino es laborioso (ved labradas sus montañas hasta la cumbre); el español, perezoso y vago (contemplad sus inmensas llanuras desprovistas en absoluto de vegetación).


El bizkaino es emprendedor (leed la historia y miradlo ocupando elevados y considerados puestos en todas partes, menos en su patria); el español nada emprende, a nada se atreve para nada vale (examinad el estado de sus colonias).

El bizkaino no vale para servir, ha nacido para ser señor (*etxejaun*); el español no ha nacido más que para ser vasallo y siervo (pulsad la empleomanía dentro de España, y si vais fuera de ella le veréis ejerciendo los oficios más humildes).

El bizkaino degenera en carácter si roza con el extraño; el español necesita de cuando en cuando una invasión extranjera que le civilice.

El bizkaino es caritativo aun para sus enemigos (que lo digan los lisiados españoles que atestan las romerías del interior y me...

Y esto no se crea que sólo nosotros lo decimos. Exceptuados Llorens Navascués y algún otro de los pagados por los gobiernos masónicos para destruir sofisticamente la historia patria todos como...



Testuari erreparatuta Bizkaitar gorputz bat eta Espainiar gorputz bat bereiz eta defini ditzakegu:

- Bizkaitar gorputza: azkarra, zintzoa, dotorea, kementsua, abila, langilea...
- Espainiar gorputza: espresiorik gabea, ahula, traketsa, alperra...

Beraz, aipa dezakegu testu honetan Sabino Aranak bereizketa bat egiten duela. Batetik, espainiarrei ezaugarri batzuk ezartzen dizkie, eta bestetik, bizkaitarrei beste batzuk. Hau oso garrantzitsua da gorputzak politizatuta daudelako.

Banaketa honek zerikusia du Espainian garai hartan zegoen egoera politikoarekin, non, ezegonkortasuna zen nagusi.

Egun, egoera berak ematen dira, baina espainiar eta bizkaitarrekin eman beharrean orain emigranteekin egiten da bereizketa hori.

#### Aurrekoetz gain, honakoak aipatzen zituen Aranak bere testuetan:

Herrialde asko aritu izan dira euren jakituria gainontzekoei zabaldu nahian; beraz, aipatu beharra dugu ezin diogula atzerritarrak eman egon direnari ukorik egin.

Langile mugimenduak ez zuen karitatea onartzen; baina Sabino Aranarentzat karitatea ona zen. Bere ustez atzerritarrak eskaleak ziren, hau da, Aranak egiten zuen interpretazioa honakoa zen; Bizkaitarrak zirenak langileak ziren, eta espainiarrak, aldiz, alferrak.

Aranarentzat ez zen egokia emakume eta gizonen elkarrekin dantza egitea.

Aranarentzat zoritxar guztietan okerrena arraza nahastea zen, hau da, berdin zaio euskara, instituzioak... galtzea baina arraza ezin da galdu. Berak zioen hobe zela ezberdintasun hori mantentzea, eta berpizkunde garaian berreskuratuko zutela pentsatzen zuen.

Liberalismoa, Espainian XIX. mendean eman zena, erokeria zen. Aranarentzat arimaren garbiketa oso garrantzitsua zen.

Hasiera batean Bizkaia zen bere aberria, baina denborak aurrera egin ahala ohartu zen Euskadi ez zela soilik Bizkaia eta azkenean bere ideiak zabaldu zituen.

## **Alfontso XII.aren erregetza (1902 – 1931)**

1875az gero, Errestaurazioaren sistemaren mende egon zen Espainia, baina sistema horretan krisia sortu zen 1902an, Alfontso XIII.aren erregealdia hasi zenean.

Alfontso XII 1885ean jaio zen (bere ama, Maria Cristina, erregeorde izan zen 1902ra arte, Alfontso XII hil eta gero 1885ean). 1876ko Konstituzioa: erregearen botereak murrizten zituen. Hortaz, garai honetan subiranotasuna Gorteetan eta erregearengan kokatuta zegoen. Hots, Erregeak ezin zuen nahi zuena egin. Baina Alfontso XII.ak 'Revoluciones de arriba' egin nahi zuen; baina hau ez zen iraultza bat izan.

1902an Errege izendatu zuten egunean honako testu hau argitaratu zuen:

- *“En este año me encargaré de las riendas del estado, acto de suma trascendencia tal como están las cosas, porque de mí depende si ha de quedar en España la monarquía borbónica o la república; porque yo me encuentro el país quebrantado por nuestras pasadas guerras, que anhela por un alguien que lo saque de esa situación. La reforma social a favor de las clases necesitadas, el ejército con una organización atrasada a los adelantos modernos, la marina sin barcos, la bandera ultrajada, los gobernadores y alcaldes que no cumplen las leyes, etc. En fin, todos los servicios desorganizados y mal atendidos. Yo puedo ser un rey que se llene de gloria regenerando a la patria, cuyo nombre pase a la Historia como recuerdo imperecedero de su reinado, pero también puedo ser un rey que no gobierne, que sea gobernado por sus ministros y por fin puesto en la frontera. (...) Yo espero reinar en España como Rey justo. Espero al mismo tiempo regenerar la patria y hacerla, si no poderosa, al menos buscada, o sea, que la busquen como aliada. Si Dios quiere para bien de España”.*

*Diario de Alfonso XIII, Urtarrilak 1, 1902.*

Alfontso XII.ak gauza asko egin nahi zituen, eta hala egingo zituela pentsatzen zuen.

### **Hondamendira bidea (1902-1917)**

1902 (Alfontso XII.ak erregetza hartu) eta 1917ra (Greba orokorra eman) bitartean zenbait erreforma egin ziren, baina Españaren egoerak hobera egin beharrean okerrera egin zuen. Okerrera egitearen arrazoiak honakoak ziren:

- Erregearen jarrera. Batzuen ustez erregeak politikan esku hartze handiegia zuen.
- Alderdi tradizionalen krisia. Liberalek eta kontserbadoreek ez zuten masa gizartera moldatzea lortu, hau da, ez zuten industrializazioaren ondorengo gizartera moldatzerik lortu.
- Alderdi tradizionalen barne krisia (korrupzioa, jauntxokeria...). Honen arrazoia jende asko egoera honetan oso ondo bizi zelako.

Antonio Maura (kontserbadorea) eta Jose Canalejas (liberala). Alderdi txanda

Elizaren boterea eta antiklerikal mugimendua (Bilbo, 1903 Begoñada). Antiklerikalismoa botere handidun ideologia izan zen langile mugimenduko kide asko antiklerikalak zirelako. Antiklerikalismoa anarkistek, sozialistek eta errepublikarrek osatzen zuten. Lehen antiklerikalak Españako errepublikarrak izan ziren, eta ondoren batu zitzaizkien sozialistak eta errepublikarrak.

Marokoko Gerran Marokon Españako ejertzitza sartuko da lurraldea kontrolatu nahian, baina Marokoko Estatuak bertatik bota zituen, eta hainbat arazo izan ziren.

*ANNUAL (1921): Bereziki larria izan zen Annualen 1921ean gertatutakoa; gidaritza militar penagarria eta Rifeko iztanleen borrokarako grina zirela eta, 8.000 espainiar soldadu hil ziren, eta arriskuan gelditu zen Melillako hiria. Marokoko gerraren kontra zeuden herritarrek, baetz ere langile klaseak.*

Nazionalismoa Katalunian

Errepublikanismoa

Langile mugimendua nahiko boteretsua izan zen Espainia osoan.

### **Bartzelonako Aste Tragikoa, 1909<sup>2</sup>**

Garai honetan (1909), Antonio Maura zen Espainiako presidente eta honako proposamen hau egin zuen; 'revolución desde arriba'. Hortaz, bere proposamena Erregearenarekin bat zetorren.

1907an antimilitarismoak oposizioa batu zuen Katalunian. Espainiak Marokon meategi asko zeuzkan; beraz, Españarentzat Maroko puntu estrategiko bilakatu zen. Baina aipatu beharra dago jada Marokoko Gerra martxan dagoela. Hortaz, 1909ko uztailaren 26an Marokora joan behar ziren soldaduek ez zuten joan nahi izan. Baina bertara soldadu jasko joan ziren, eta horietako askok familia eta seme-alabak zituzten; egoera oso gogorra izan zen.

Anarkistek (Solidaridad Obrera) mugimendua bideratu zuten, eta aste horretan liskarrak gertatu ziren; barrikadak, biolentzia antiklerikala... Liskar hauetan 108 hildako (104 zibil eta 4 polizia) izan ziren, eta errepresio handia zen nagusi. Gainera, atxilotuak milaka izan ziren, eta errepresioa zabaldu zen, ez bakarrik Bartzelonan baita Espainia osoan ere. Atxilotuak izan zirenetako bost hiltzera kondenatu zituzten; horien artean Francisco Ferrer. Horrez gain, liskar hauek antiklerikalismoa ekarri zuten, hau da, 50 eliza eta konbentu baino gehiagori sua eman zieten. Ferreren fusilamenduaren ondoren Españako Gobernuaren aurkako kanpaina bat abiatu zen. (Hemen, fusilamenduen ondoren Maura gobernutik botako dute eta liberalek hartuko dute agintea) Españan liberalek frente antimauristan sartzea erabaki zuten, eta hainbat manifestazio izan ziren. Orduan Erregeak amore eman eta bere kargua utzi eta gobernu berria eratzeko liberalei deitu zien.

Greba hau bultzatu zuen ideologia antimilitarismoa izan zen, eta langile mugimendua beren ideologia zela eta ezin zen gerrara joan. Langile mugimenduko hiru alderdiak (sozialistak, anarkistak eta errepublikanoak) lehen aldiz bateratu ziren. Gainera, gerrak aurrera egin ahala liberalek batu zitzaizkien hiru alderdi hauei.

Españako liberalek batu ziren eta hainbat manifestazio burutu zituzten.

Hemen ikus dezaakegu hein handi batean errepublikarako bidea eginga zegoela.

Erregea beti zegoen gertaeraren atzean, hau da, hainbat kargudun euren karguetatik kendu eta azkenik Muarari bere kargua kendu eta Canalejas gobernadore ezarri zuten.

---

<sup>2</sup> **Bideoa:** 'Semana Trágica de 1909' (4:59')

## 1917ko iraultza

Garai honetan, I. Mundu Gerra (1914-1918) zen nagusi, baina Espainiak ez zuen gerra honetan parte hartu. Hala ere, janariaren prezioak gora egin zuen, eta soldatak eta prezioak ez ziren berdindu.

1917ko abuztuan Greba Orokorra eman zen, zeinetan, anarkistek, errepublikanoek eta sozialistek greba deitu zuten, eta ondoren CNT eta UGT batu zitzaizkien.

Greba hau soziala, politikoa eta militarra izan zen:

- *Soziala*: langile mugimenduaren boterea; soldatek ez dute gora egingo eta jendeak ez du janaririk izango. Jendea jada nazkatuta zegoen ez zeukatelako ezer.

*“Toda España sabe que los trabajadores conscientes llevan más de dos años reclamando medidas que atenuasen algo la irresistible situación creada por el encarecimiento de los artículos de primera necesidad y la crisis del trabajo. NO ha habido más que palabras”.  
Francisco Largo Caballero (UGT)*

- *Politikoa*: Berrezarkuntzaren gain behera zen nagusi, eta krisi egoera eman zen. ‘Asamblea de Parlamentarios’ Bartzelonan bateratu zen, eta zenbait bilera izan zituzten. Aldarrikapen nazionalista bati eman zitzaion hasiera, eta Frances Cambók, Liga Regionalistaren liderrak, aurrea hartu zuen.
- *Militarra*: antimilitarismoa. ‘Juntas de Defensa’, armadako erakundeak, zenbait erreforma eskatu zituen, soldaten igoera esaterako.

Anarkistek euren ideologia zela eta ez zuten botorik ematen.

1910ean lehen diputatu sozialista kongresuan, eta jada denbora izan zuten beren ideologia parlamentuan ezartzeko.

Egoera hau zela eta langile mugimenduak greba deitu zuen, eta greba honek Berrezarkuntzaren amaiera hasi zuen. Hemendik aurrera ezegonkortasuna gero eta nabariagoa zen, eta Primo de Riveraren diktadura hastear zegoen.

1921eko martxoan Eduardo Dato anarkistek erahila izango da. Erregea bigarren aldiz bere erregetzan presidente erahil baten entierora joango da.

1923ko irailean **Primo de Riveraren diktadurari** hasiera emango zaio.

Primo de Riveraren diktadura garaian honako arazoak ziren nagusi:

- Kaleetako liskarrak (grebak, langile mugimenduak gero eta boteretsuagoak zirelako)
- Katalunian nazionalismoaren jaiotza
- Marokoko Gerra (milaka hildako izan zituena)
- Jauntxokeria (botoen manipulazioa)

Primo de Riverak militarra zen aldetik politikoei lurra desastrera eramango dituztela uste du, eta militarrek bearrezkoak direla. Beraz, dio politikariek ez dutela ezer onik egin, eta berak, militarra den aldetik, gizartea salbatuko duela. (Testu batetik aterata)

Diktadura militarra izan zen, eta bi fasetan banatuta dago: direktorio militarra eta direktorio zibila.

- Direktorio militarra (1923 – 1925)

Garai honetan Primo de Rivera zen botere guztia zuena, ez zegoen ministro kontseilurik. Bera zen guztiaren jabe. Garai honetan azpimarratzekoa da sozialisten erakutsitako jarrera sumiso eta kolaboratzailea.

Mussoliniren faxismoaren antza bazuen ere, ez zen hain totalitarioa izan eta, batez ere, kontserbadorea izan zen.

Garai honetan zentsura izan ziren; komunisten, anarkisten eta alderdi nazionalisten ilegalizazioa, prentsaren zentsura eta hainbat delitu epaile militarren esku uztea kasu.

Modernizazioaren lehen zantzuak garai honetan ekin ziren, eta honek 20. Hamarkada zoriontsua ekarri zuen

- Direktorio zibila

Garai honetan Rivera legitimitate eta estabilitate bila zebilen, baina beraren gobernu militarra zen. Diktadura garaia izan arren, modernitate garaia ere bazen; beraz, honek egoera laboralaren estabilizazioa ekarri zuen, soldaten eta enpleguen gorakadarekin. Zenbait neurri sozial ezarri ziren, pentsioak kasu. 1926an 'Codigo de trabajo' onartu zen, eta honekin langileen lan baldintzak hobetu ziren.


### ***Diktaduraren amaiera***

Primo de Riverak bazekien armada zuela laguntzarik sendoena, baina hura ere monarkikoa zen, eta 1929tik aurrera, erregearekiko eta armadako buruzagiekiko harremanak okertu egin ziren. Estatuak finantzen arloan gero eta zailtasun gehiago zituen, eta diktadorea gaixo zegoen. Azkenik, Primo de Riverak dimisioa aurkeztu behar izan zion erregeari 1930eko urtarrilean.

## II. ERREPUBLIKA ESPAINIAN (1931 – 1936)

Primo de Riveraren diktaturaren ondoren, Euskal Herriak eta Espainiak Errepublika ezartzea aukeratu zuten, bide demokratikotik, erregimen horrek gizartearen arazo larriak konponduko zituen itxaropenaz. Alfontso XIII.-a erbestera joan zen eta monarkiatik errepublikara trantsizio lasaia eginzen. 1931 ko udal hauteskundeetan errepublikanoak izan ziren garaile hirietan, eta horrela 1930eko erregimen monarkikoaren aurkakoa zen Donostiako Hitzarmena sinatu zuten alderdien indarra berretsi zen.

1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan, alderdi errepublikanoa izan zen garaile; eta hirietako boto gehienak errepublikanoek lortu zituzten. Hortaz, garai honetan Alderdi Errepublikanoa eta Alderdi Sozialista bati ziren 'Conjunción Republicano – Socialista' izeneko koalizioa osatuz.



Coalición o tendencia	Concejales	Alcaldes de capitales de provincia
Monárquicos (a)	40.324	10
Republicanos y socialistas (b)	36.282	37
Esquerra Republicana	3.219	3
Lliga Regionalista de Catalunya	1.014	
Nacionalistas Vascos	267	
Comunistas	67	
independientes	1.207	

Hauteskundeen emaitzen berri jakitean, 1931ko apirilaren 14an II. Errepublika Eibarren aldarrikatu zen, eta ondoren Espainia osora zabaldu zen. Ondorioz, Alfontso XIII.ak erbestera alde egin zuen, eta hala amaitu zen monarkiaren garaia. Kataluniarren kasuan, Bartzelonako udaletxetik aldarrikatu zuen errepublika Compaynsek, eta Madrilén, aldiz, monarkia amaitu berri zenez, Ministroek jauregia utzita ospatu zuten errepublika madrildarrek. Alcala Zamora izan zen La Puerta del Solen errepublika aldarrikatzeaz arduratu zena.

### Behin behineko gobernua: 1931/04/14 . 1931/10

1931ko apirilaren 14an, behin behineko gobernua osatu zuten, koalizio errepublikar-sozialistako kideak izan ziren ordezkari; tartean Niceto Alcala Zamora zen Errepublikako presidentea, eta Manuel Azaña (Ezkertiar errepublikanoa) Gobernuako presidentea, eta hauek hainbat erreforma ezartzeaz gain, armada eraberritu eta bere indarra murriztu zuten.

Era berean, hauteskundeetarako deia egin zuten Gorte Konstituziogileak eratu eta Konstituzio berria idazteko, zeina, ezkertierra, demokratikoa, aurrerakoa, laikoa, deszentralizatu eta autonomiei aipamena egiten ziena zen.

### **Lehenengo neurri erreformistak:**

Konstituzioa onartu aurreko hilabeteetan, behin-behineko gobernua erregimen berria bermatzeko oinarriko jotzen zituen neurriak jarri zituen abian.

Honakoak izan ziren ezarri zituzten erreformetako batzuk:

- *Erreforma militarra:*

Armadak zuen nagusitasunak ezegonkortasuna ekar zezakeen beldur ziren errepublikarrak; eta beldur horrek bultzatuta, Azañak, ofizialen kopuru murriztu zuen.

Erasoko Guardia (Guardia de Asalto), hiriko polizia taldea ,erromatar inperioko poliziak izan ziren, eta Guardia Zibilaren talde paralelo gisara osatu ziren. Garrantzitsuak izan ziren, eta gerraren ondoren errepresioa handia jasan zuten.

- *Nekazaritzaren erreforma:*

Espainia herrialde nagusiki nekazaria zen 1931n. Eta iraultzarako potentzial bikaina eskaintzen zuen nekazaritzak. Beraz, nekazaritzaren erreforma sustatzeko zenbait dekretu eman zituzten. Ondorioz, Nahitaezko Laborantza Dekretua ezarri zen, zeinetan, lur jabeak beren lurra ereitera behartuta, lur saila zegoen herriko jornalariak kontratatzea, jornalarietara gutxienezko soldata finkatzea eta zortzi orduko lanaldiak ezarri zituzten.

Adibidez, Patroi asko Errepublikarren aurka zeuden Konstituzioak lan eskubideak bermatzen zituelako eta patroiek ez zirelako eskubide horiek betetzera iristen; hauek nahi zutena egitera ohituta zeuden. Hortaz, patroiak erregulazio sozialaren aurka zeuden, eta ez zituztenez legeak betetzen nekazarietara eta langileetara gatazkak izan zituzten. Nekazarietara gatazkak izatearen arrazoia nekazarien erreforma izan zen. Anarkistak patroien aurka egitera ohituta zeuden, eta pentsamendu hori birmoldatzea oso zaila zen.

- *Erligioaren auzia:*

Beste hainbat arlotan bezala, Azañak elizaren eragina murriztu nahi zen, eta hainbat lege iraultzaile onartu ziren horretarako: ezkontza zibila eta dibortzioa onartzen zuena, hezkuntza laikoa defendatzen zuena...

- *Auzi autonomikoak:*

o Kataluniako autonomiaren auzia:

Katalunian, ERCK irabazi zituen 1931ko apirilko hauteskundeak, eta Maciak Kataluniako errepublika aldarrikatu zuen Espainiako Errepublikaren barruan. Ondorioz, gobernu autonomoa aitortu zen, eta Nuriako Estatutua proposatu.

o Euskal autonomiaren auzia:

Euskal Estatutua eratzeko ekimenaren aitzindariak, J. A. Agirrek, gizarte erreformen alde zegoen agiri bat idatzi zuen. Lizarrako Estatutua 1931ko irailean aurkeztu zen, baina ez zen onartu ez zatorrelako erlijioarekin bat.

### **Azañaren lehen gobernu progresista (1931 – 1933) – Biurteko erreformista**

Azaña buru zen gobernu, ezkerreko indar errepublikarrak, sozialistak eta nazionalistak biltzen zituen, Biurteko Erreformista izenez ere ezagutu zen. Gainera, erreforma hauekin aurrera jarraitzeko asmoa azaldu zuen ezker indar errepublikanoak.

Honakoa zen erreformen egoera:

- *Nekazaritzaren erreforma:*

1932an Nekazaritzaren Erreformatarako Oinarrien Legea onartu zen, baina erreformak oso mantso jarri ziren abian eta nekazariak anarkismora hurbildu ziren.

- *Erljioaren auzia:*

Erljioaren auziaren ondorioz, katolikoak eta buruzagi errepublikarrak elkarrengandik urrundu ziren. 1932an Jesusuen Lagundia desegin zuten, eta EAJk Errepublika ezagutzen zuen arren, eskuindarrekin lankidetzan jarraitu zuen, Elizaren eskubideen aldeko borrokan.

- *Autonomiak:*

- o Estatutu katalana:


Alcala Zamorak onespina eman zion Nuriako Estatutuari 1932ko irailean, aurreproiektuari hainbat aldaketa eginez. Ondorioz, Kataluniako erakunde autonomikoak indarrean jarri ziren, eta autogobernuaren bidetik abiatu zen; Macia (ERC) izan zen Generalitateako lehendakari, eta Luis Compayns parlamentuko lehendakari.

'Estatuto de Nuria' (1932) – 'Estatut de Catalunya'

Estatutuaren azalak sinbolismo asko dauka euren hizkuntzan idatzia izan zelako.

Sinboloak:

- Koloreak
- Hizkuntza
- ...



- o Euskal Estatutua:

1932ko urtarrilean, Estatutuaren aldeko beste kanpaina bat egin zen, EAJk zuhertasunez bada ere onartu zuen errepublikarrekin bat egitea, eta ekainean, euskal udalerriek autonomia proiektu berria aurkeztu zuten.

- o Galiziar Estatutua:

Gerra Zibila hasi zen, eta eragotzi egin zuen hark zioena.

- *Erreforma militarra:*

Behin behineko gobernuak sustatutako erreforma militarrek, krisialdia eragin zuen armadan, 'Sanjujada' delako krisi iraultzailea, hain zuzen ere.

- *Hezkuntza erreforma:*

1931ko Konstituzioaren arabera, nahitaezkoa zen Lehen Hezkuntza doakoa eta mistoa. Era berean, Bigarren Hezkuntzan hobekuntzak egin zituzten, eta Unibertsitatean ikerketa arloa sustatu zuten.

**Azañaren gobernuaren krisia:**

***Gatazka sozialak:***

1932 eta 1933an gertatu ziren gizarte gatazkek larritu egin zuten gobernu erreformistaren krisia eta hura deuseztatzea eragin zuten. Horrez gainera, 1933ko urtarrilean, anarkisten matxinadak sortu ziren

Katalunian eta Andaluzian; Casas Viejaseko matxinaren kontrako Erasoko Guardiak bideratutako zapalkuntza gogorak kalte politiko konpenezina egin zion Azañari.

- Cadizko 'Casas Viejas' matxinada:

Hau garaiko gatazkarik larriena izan zen, zeinetan, 1933ko urtarrilaren 11n anarkista eta nekazari batzuk Guardia Zibilaren kuartela hartu zuten, eta bi hil zituzten (beste bi bahitu). Guardia de Asalto lagundu nahian joan zen, eta 22 hildako izan ziren horien artean ume txiki bat.

Azañak honakoa aipatu eta bere buruari errua kendu nahi izan zion:

*'En Casas Viejas no ha ocurrido, que sepamos, sino lo que tenía que ocurrir. Se levantan una docena de hombres enarbolando esan bandera del comunismo libertario y se hacen fuertes, y agreden a la Guardia Civil, y causan víctimas a la Guardia Civil. ¿Qué iba a hacer el gobierno?'*

### **Gobernu erradikal-cedista (1933ko azarotik 1936ko otsailera) – Biurteko Eskuindarra**

1933ko azaroaren 19an errepublikano erradikalak eta CEDA garaile izan ziren, eta 36ra arte egon ziren agintean.

#### ***Erreformismoaren kontrako politikak:***

- *Militarren auzia:*

Sanjurjo jeneralaren huts egindako estatu kolpea zela eta, espetxeratutako militarrei eta monarkikoei amnistia eman zien legea onartu zen.

- *Nekazaritza arloko kontra-erreforma:*

Nekazaritza arloko erreformaren aurkako politika abian jarri ziren, eta 1932tik aurrera egindako aurrerapauso guztiak deuseztatu zituzten. Lehenengo jabeei lur batzuk itzuli zizkieten, ondorioz nekazariak lurretan finkatzea erabaki zuten.

- *Autonomien auzia:*

Euskal estatutua eta Nuriako estatutua bertan behera utzi ziren.

#### ***Indar politikoaren berrantolaketa:***

1934tik aurrera indar politikoak berrantolatu ziren: Ezker errepublikazalearen sorrerarekin eta JONS eta Falangearen elkartzearekin. Politika eskuindarren erradikalizatzearekin, zentralismoa aurrera eraman zen eta autonomismon katalana suntsitu zen, eta EAJ gobernu eskuindarren aurka jarri zen, baina ezkerreko alderdiei ere ez zien laguntzarik eman.

1934ean ezker eta eskuin alderdien arteko tentsioak handitu ziren, gobernuak alderdi politikoetan eta izena ematea debekatu zuen eta azkenean 34ko urriko iraultza egin zen Asturias, Katalunia eta Hego Euskal Herrian, eta honekin batera egin ziren grebak eta liskarrak Gobernuak zapaldu zituenak. Adibidez, 1934an Asturiasen 1.000 hildako eta milaka atxilotu izan ziren. Bertan, langileen arteko hainbat gatazka eman ziren. (Bertara joan zen Franco laguntza ematera)

Gertaera hauen eta eskuindarren erradikalizazioaren ondorioz gobernuak ezegonkortu eta hauteskunde deia egin zen.

Garai honetan hiru presidente izan ziren; Alejandro Lerroux, Ricardo Samper eta Joaquin Chapaprieta.

Momentu honetan hainbat arazo izan ziren, horien artean hainbat gatazka eta greba.

### Fronte Popularraren Gobernu (1936ko otsailtik 1936/39ko uztaileira)

Garai honetan, lehen aldiz bozkatu zuten anarkistek (CNT) beren kideak atxilotuta zeudelako.

Fronte Popularraren programa honakoa izan zen: (1936ko urtarrila)

- Beraien erabakiak hartzerako garaian askatasuna dute, nahiz eta denak ideia beren alde egon. Hots, hauteskondeak egiterako garaian ados azalduko dira.
- Lehen gobernuan, Azaña eta sozialisten artekoan, nekazaritza erreforma eman zen, eta hau ez betetzearen ondorioz 'Casas Viejas' gertatu zen. Beraz, aurreko egoera ikusita ez zuten berriro gertatzerik nahi eta jabetza pribatua beren esku zegoen.
- Nekazaritza erreformaren aurrean erradikalek eta moderatuek negozio bat egin zuten
- Ez zuten bankuen nazionalizazioa onartzen; Espainia ez zen Estatu komunista bat, baina ez zuten hau onartzen jabetza pribatua bermatzen zutelako. Beraz, estatu sozial eta liberala babesten zuten.
- Europan argia izan den tentsioa klase borrokarena izan da, eta baita sozialismoaren gainean zuten ikuspegia ere. Gainera, estatu burges errepublikarra ere garrantzitsua izan zen.
- Askatasun demokratikoa eta klase borroka ez dira gauza bera. Hauek langile guztien interesak babesten dituzte, eta hiritar guztiok positiboki egin behar dugu aurrera.
- Aurretik emandako autonomia estatutuak berriro ere aurrera eramango dira.

**AZTERKETAN JARRIZKEO: ZERGATIK EGITEN DEN PAKTUA, ESKUINA OSO POTENTE ETA AZAÑAK FRONTE POPULARRA MARTXAN JARRIKO DU!!!**

### 1936ko hauteskundeak (otsaila)

1936ko hauteskundeetan (otsailean) populazioaren %72ak bozkatu zuen: (hauek dira lortu zituzten emaitzetako batzuk)

Partido	Escaños	Grupo parlamentario en el Congreso
<a href="#">Partido Socialista Obrero Español</a>	99	Partido Socialista Obrero Español
<a href="#">Izquierda Republicana</a>	87	Grupo Izquierda Republicana
<a href="#">Unión Republicana</a>	38	Unión Republicana
<a href="#">Esquerra Republicana de Catalunya</a>	22	Grupo Esquerra Catalana
<a href="#">Partido Comunista de España</a>	17	Partido Comunista de España
<a href="#">Acció Catalana</a>	5	Grupo Esquerra Catalana
<a href="#">Unió Socialista de Catalunya</a>	4	Grupo Esquerra Catalana
<a href="#">Partido Galleguista</a>	3	Grupo Izquierda Republicana
<a href="#">Partit Nacionalista Republicà d'Esquerra</a>	2	Grupo Esquerra Catalana
<a href="#">Unió de Rabassaires</a>	2	Grupo Esquerra Catalana
<a href="#">Partido Republicano Democrático Federal</a>	2	Grupo Mixto
<a href="#">Republicanos independientes de Izquierdas</a>	2	Grupo Mixto
<a href="#">Partit Català Proletari</a>	1	Grupo Esquerra Catalana
<a href="#">Esquerra Valenciana</a>	1	Grupo Esquerra Catalana
<a href="#">Partido Obrero de Unificación Marxista</a>	1	Grupo Mixto
<a href="#">Partido Sindicalista</a>	1	Grupo Mixto
<a href="#">Partido Sindicalista Independiente</a>	1	Grupo Mixto
<b>Total</b>	<b>263</b>	

Hemen atera zen Manuel Azaña presidente, eta berak batasuna aldarrikatu zuen honakoa esanez: *‘pido unión bajo la bandera en la que caben los rebuplicanos, y todo el que siente amor a la patria, la disciplina y el respeto a la autoridad constituida’*. Hots, ez dute banaketa bat nahi denak elkarrekin egotea nahi dute.

Beraz, 1936ko hauteskundeak Fronte Popularrak irabazi zituen, ezkerreko alderdien koalizioak. Gobernu honek hainbat helburu zituen, eskuineko gobernuak egindako aldaketak alde batera uztea kasu. Honela, amnistia eman zien aurreko gobernuaren zapalkuntzaren biktimei, Kataluniako estatutua berriro ezarri zuen, nekazari eta merkataritxi txikien baldintzak hobetu zituen eta Falangea debekatu zuen. Ondorioz, eskuin alderdiak ezkerak zuen boterearen beldur ziren.

Amnistia eman zen presoentzat (delitu sozial eta politikoak)

UGTren eta Juventudes Socialistasen erradikalizazioa eman zen.

JSU (Juventudes Socialistas Unificadas) sortu zuten, non, sozialistak eta komunistak elkartu ziren, eta honek sozialisten artean arazoak ekarri zituen.

Honekin guztiarekin batera iraultza giroa izan zen nagusi eta hainbat greba eta okupazio egin ziren. Denborak aurrera egin ahala egoera gero eta okerrago zegoen, eta eskuindarrek erakunde biolentoak sortu ziren Errepublikaren kontra; Nafarroan eta Araban: requete ‘txapel gorriak’ esaterako. Tartean, Castillo teniente ezkertiarra eta Calvo Sotelo eskuindarra hil zituzten, gatazkak areagotuz.

Hainbat general erbestera bidali (Franko Kanarietara bidali zuten; Goded Balearretara, eta Mola Nafarroara) zituzten arren, Molak, Francok, Sanjurjok eta beste general batzuek estatu kolpea prestatu zuten, eta Gerra Zibilaren lehen zantzuak azaldu ziren. Honek, 1936ko altxamendu militarra ekarri zuen, eta Franko generalaren gidaritzapean Gerra Zibila hasi zen.

## **II. Errepublika: hezkuntza eta kultura**

Errepublikako gobernuak lan handia egin zuten hezkuntza eta kultura gara zedin. Garai honetan lisarrik handienak hezkuntza laikoaren harira eman ziren, eta irakasleen bizi baldintzak hobetu ziren. Honez gain, eskola berriak eraiki eta unibertsitatea eta ikerkuntza hobetu ziren.

‘Misiones pedagogicas’ antolatu zen Espainia osoan.

### **TESTU IRUZKINA: ‘La huella de la violencia anticlerical’**

Honakoak dira liburuaren, testu baten iruzkina egiteko pausoak;

Lehendabizi, irakurritakoaren **laburpena** egingo dugu:

- Testua kokatu, zeri buruz hitz egiten duen
  - o 1936 eta 39 bitartean erlijioaren inguruan emandako hainbat puntu azalduko ditu.
  - o Antiklerikalismoa zer den azalduko dugu.
  - o Kleroa erahiltzen zuten, ez baitzeukaten apaizak kartzelan sartzeko inolako interesik.
- Testuaren protagonistak kokatu:
  - o Nortzuk egin zuten biolentzia antiklerikal hori? (protagonistak kokatu) Anarkistak (gehien egin zutenak), Komunistak, Sozialistak eta Errepublikanoak
  - o Noren kontra? Elizaren (apaiza eta mojen) aurka aritu ziren.

- Gertakizunen zergatiak azaldu (garrantzitsua da hauek azaltzea)
  - o Zeintzuk izan ziren ekintza hauen arrazoiak? ‘Toda esa violencia... ..guerra de tres años’
  - o Historilariak azalpen bat ematen du historia azaltzekoç
- Zergatietan sakondu
- Nola sortzen da elizaren biktimizazioaren errelatoa?

Ondoren, gure apunteak hartu eta antiklerikalismoari buruz zer dugun begiratu (**gaiaren inguruko azalpena** egin).

Amaitzeko, gure **iritzia** eman liburuaren inguruan. (Egokia iruditu zaigun ala ez)

## II. ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA EUSKAL HERRIAN

Euskal pluralismo politiko, sozial eta kulturalaren ziklo historikoa II. Errepublika etorri zenerako hasita zegoen. Ziklo hau alderdi sozialistaren sorrerarekin hasi zen, hauek izan baitziren modernizazioaren bultzatzaileak.

Bi politikari garrantzitsuenak Indalecio Prieto (PSOE) eta Jose Antonio Agirre (EAJ) ziren.

- Jose Antonio Agirre izan zen lehen Eusko Jaurlaritzako lehen Lehendakaria.
- Eusko Jaurlaritzan zeuden alderdiak honakoak ziren: EAJ, ANV, PSOE eta Komunistak.
- 'La pasionaria', Dolores Ibarruri (PCE), izan zen Gallartan garrantzia izan zuen politikarietako bat.
- Indalecio Prieto (PSOE) garrantzitsua da, bera izan baitzen herritarrei errepublika defenditzeko pausoa eman zuena.

1931ko apirilaren 12ko hauteskundeetan; EAJ nagusitu zen udal gehienetan, baina PSOEk irabazi zituen udal jendetsuenetan. Ondorioz, bi alderdien artean tentsio politiko handia zegoen.

Autonomia Estatutuaren eztabaida

Gerra garaia

Eskuin monarkiko eta tradizionalisten (karlistak) zatiketa eman zen, eta EAJ batu egin zen. Bertan, hainbat liskar izan ziren Sabino Arana hil zenetik II. Errepublikari hasiera eman zitzaion arte. Alderdia zatituta zegoen, eta honek botoen eta boterearen galera ekarri zuen. Ezkerrean Indalecio Prieto buru zuen bloke errepublikano sozialista batuta ageri zen.

II. Errepublikaren hasieran blokeak horrela geratu ziren:

- Errepublikanoak: errepublikano-sozialistak, komunistak (PCE)
- Neutralak: EAJ
- Monarkikoak: eskuin monarkikoa

Honek, balantza politikoan hainbat ondorio izango ditu; azken finean, neutraltasuna ez delako posible. Beraz, errepublikaren eboluzioa ikusterako garaian

1931ko apirilean aurrera eraman ziren udal hauteskundeetan eskuin alderdiko eta EAJko kideak nagusitu ziren, baina hiri handienetan PSOEk irabazi zituen hauteskundeak. Beraz, konturatu ziren herrietan botoa manipulaturik egoteaz gain, bertako botoak kontserbadoreagoak zirela.

Kontserbadoreak karlistak eta EAJ ziren, ez zuten leku guztietan indarra izan.

1931ko hauteskundeetan, hiri jendetsuenetan errepublikanoek irabazi zituzten hauteskundeak, herri gehienetan EAJ irabazi zuen, eta Gasteizen eta Iruñean karlistek (CT) irabazi zituzten hauteskundeak. Beraz, garai honetan ez zen homogeneitatea nagusi.

Hauteskundeetako emaitzak:

- Hiri jendetsuenetan → errepublikanoak (PSOE)
- Herri gehienetan → EAJ
- Iruñean eta Gasteizen → karlistak (CT)

## Pluralismo moralizatua

Boterea hiru alderdiren artean banatuta zegoen; CT, PSOE eta EAJ. Espainian ez zeuden ez EAJ ezta karlistak ere. Orduan Espainia osoan ekilibrio politikoa eskuin eta ezkerren artean banatzen zen.

Berrezarkuntzan EAJk ez zuen indar handirik,

Berrezarkuntza garaian, alde handia zegoen babes soziala zuten alderdien eta parlamentuan zeuden alderdien artean. Beraz, hauteskunde ziklo honi amaiera ematen zaio eta honek zatiketa handia ekarriko du. Gainera, muturreko alderdien aniztasuna eta ardatz aniztasuna nagusituko dira.

Bestalde, zeinbait diferentzia zeuden

Sistemaren alderdi garrantzitsuak. Hots, errepublika garaian errepublikar sistemaren aurkako hainbat alderdi zeuden, eta honek hainbat arazo ekarri zituen. Aurka zegoen alderdietako bat Euskadiko bigarren alderdi garrantzitsuena izan zen. Gernikaren kasuan, errepublikaren aurka zegoen herri bat bonbardeatu zuen Condor Legioak (alemaniarrek).

Karlistak ziren errepublikaren etsai nagusia monarkiko absolutistak zirelako, leku batzuetan indar handia zutelako (Arabian eta Nafarroan esaterako), erlijioaren alde zeudelako. Hortaz, karlistak errepublika zapaltzeko prest zeuden, beren ustez, honek ez zuelako bermerik.

Garai honetan EAJ neutral ageri zen, hau da, ez zuten errepublikaren idea laikoetan sinesten, baina hauek foruen alde zeuden, eta Espainako Erregea zen foruei zin egin behar ziena. Baina aipatu beharra dago hauek autonomia eta foruen alde zeuden.

31n errepublika aldarrikatu zenean EAJ errepublikaren aurka azaldu zen, hauek karlisten babesle zirelako. Karlistek eta Jeltzaleek komuneean zuten kontserbadoreak, oso erlijiosoak... zirela. Hortaz, karlismoarekin aliatu eta behin behineko gobernuari alde egin zuen. Hortaz, EAJk ez zuen konstituzioaren alde bozkatu, baina konstituzioan autonomia estatutua onartzen zenez Gerra Zibil garaian Errepublikanoekin aliatu ziren.

Karlismotik errepublikanismoa bidean EAJ erdian geratuko da, ez eskuinean ez ezkerrean.

Honakoak ziren alderdiak:

- Eskuina (tradizionalismoa): CT eta monarkikoak
- EAJ → neutroa
- Ezkerra: PSOE, PCE, errepublikanoak eta CNT

Sistemaren ideologizazio handia: ideologizazioa oso muturrekoa zen. Hiru hauteskunde izan ziren; 31n, 33an eta 36an. Denborak aurrera egin ahala polarizazioa gero eta nabarmenagoa zen. Hauteskunderen lotutako guztia elizari lotuta zegoen.

Honakoak izan ziren 36ko hauteskunderetan eman ziren lemak: 'Kristo ala Lenin', 'Erroma ala Moskú' eta 'España ala

Nazismoa, karlismoa, faxismoa eta frankismoa ez dira gauza bera.

- Frankismoa tradizionalista eta erlijiosoa zen. Falange Faxista hemen kokatzen zen; frankismoak altxatu zenean indar ezberdinak hartu zituelako.

Zentroa haustea:

Espainian bezala Euskadin zentroa ez zen 36an hondoratu. Errepublikak aurrera egin ahala EAJk aurrera egin zuen. Baina Fronte Popularra agertu zenean kalteak ekarri zizkion EAJri.

Euskal Errepublikanismoan hiru masa alderdi zeuden, hau da, botere sozial duten hiru alderdi zeuden; PSOE, CT eta EAJ ziren alderdi horiek. 36ko triangelu politiko honetan erlijioak garrantzia handia zuen. Erlijioak gerra garaian garrantzia handia izan zuen, baita euskal errepublikan ere.

Baina bazen EAE eta Nafarroaren arteko alde bat, Araba eta Nafarroa eta Gipuzkoa eta Bizkaia hain zuzen ere. Adibidez, CNTk irabazi zuen Arabako landa eremuetan, Guardian esaterako. Gipuzkoan eta Bizkaian EAJk zuen indar handiena batez ere Bilbo Handian. Nafarroan, aldiz, eskuinaren hegemonia nabari zen. Karlismoa eta nazionalismoa izan ziren EAE eta Nafarroaren arteko bereizgarri nagusia.

Arabian eta Nafarroan CT eta monarkikoak ziren nagusi, eta Gipuzkoa eta Bizkaian, aldiz, EAJ eta CNT.

## **Autonomia Estatutuak**

Hiru autonomia estatutu izan ziren. Batek (Lizarrako Estatutuak) ez zuen aurrera egin antikonstituzionala zelako, eta hauek Vatikanoarekin lotura izan nahi zutelako. Bigarrenak ere porrot egin zuen EAJk ez zuelako onartu; eta azkenik, hirugarrenak aurrera egin zuen.

Hiru Autonomia Estatutuak honakoak ziren:

- **Lizarrako Estatutua** (El Gibraltar del Vaticano)

Errepublika aldarrikatu eta handik hiru egunetara EAJk Bizkaiako alkate eta zinegotziak deitu zituen Gernikan, baina Alcala Zamorak bilera hori debekatu zuen ez zelako bertan bilduko ziren horietaz fío, EAJ ez zelako Errepublikaren aldekoa. Hala ere, errepublikarrek onartu egin zuten, euren helburua errepublika bat aurrera eramatea zelako. Katalunian ez bezala Euskadin ez zen autonomia aurreko organismorik izan, eta ez zen Estatutua idazteko adostasunik egon Foru Aldundietako ezkerren eta gainerakoen artean liskarrak zirelako. Agirrek boterea zuen alderdien, eta honek alkateen mugimendua sortu zuen, baina ez zuten aurrera egitea lortu. Mugimendu horren enkarguz Eusko Ikaskuntzak (Arlo ezberdinetan banatzen den instituzio bat da) 31ko maiatzean lau probintzietarako (EAE + Nafarroa) Estatutua idatzi zuen. Bi elementu polemiko izan zituen; bata, Vatikanoarekin konkordatu sinatu izana, eta bestea, etorkinen aurkako jarrera. Estatutu honen aurkari nagusia Indalecio Prieto izan zen, zeinak, 'El Gibraltar del Vaticano' babesten zuen. Udaletxeen herenak onartu zuen Estatutua, hau da, EAJren eskuetan zeuden udaletxe gehienak; baina hiri handienak Estatutuaren aurka agertu ziren. Beraz, botere instituzionala eta botere popularra bereizita zeudela nabaria zen.

\*EAE - ANV (Eusko Abertzale Ekintza - Acción Nacionalista Vasca) EAJko kide batzuek sortutako talde bat izan zen, eta hauek ez zuten Sabino Aranaren ideia onartzen. Aitzitik, hauek erlijioari uko egiten zioten, eta Nazioaren ideia etorkizuneko ideia gisara ikusten zuten.

- **1933ko estatua**

Behin Errepublika aldarrikatuta eta Konstituzioa onartuta 1931ko abenduan beste Estatutu onartu zen, zeinetan Euskal Autonomia prozesua martxan jarri zen. Hemen Lizarrakoarekin gertatu zena berririo gertatu ez zedin lau irizpide ezarri ziren:

1. Foru Aldundiek proiektu bat egitea, EAJk ez zuelako Foru Aldundietan inolako indarrik; aitzitik, ezkerria zen indarra zuena.
2. Euskal Herriko Udalen Batzarrak onartzea.
3. Herriak erreferendum bidez gauzak onartzea.
4. Gorteak onartzea.

Lau irizpide hauetan botere guztiak eta alderdi guztiak ageri ziren. Bakoitzak leku batean garrantzia zuelako.

EAJk bide hau onartu zuen, baina karlistek eta eskuin tradizionalistak ez zuten onartu, ez baitzeuden plazaratu zenarekin ados. Beraz, denbora asko behar izan zen planteatu zen horrekin aurrera egiteko. Ezkerrak eta eskuinak ez zuten erlazio onik. Bi urtekoaren amaieran 1933ko abuztuan onartu zen.

Behin Estatutua onartuta erreferenduma egin zen, zeinetan, gehiengo zabal batek Estatutua onartu zuen. Gipuzkoarrak eta bizkaitarrak alde agertu ziren, baina Araban abstentzio maila oso altua izan zen.

33ko abenduan Gorteek lurralde autonomiak emateko aukera gutxiago zuten, eta Euskal Estutua gelditu egin zen, eta Arabak ez zuen Estatutua onartu. Proposamenak aurrera egin zuen arren, bigarren biurteko errepublikako gorteak ez zion irtenbiderik eman Estatutuari. 34an zenbait eztabaida izan ziren, eta honek erakusti zion EAJri autonomian interesa zuen alderdia ezkerra zela. Horregatik, 34ko udan Estatutua Gorteetatik aldendu zen.

1934an Asturiasko Iraultza eman zen, eta Iraultza honek Euskadin eragina izan zuen, Eibarren, Arrasaten eta Ezkerraldean kasu. Beraz, hemen Iraultzara joan ziren gehienak sozialistak izan ziren. Eskuinak uste zuen Iraultza hau Gobernu desegituratzearen arrazioa izan zela, eta gainera, uste zuten estatu kolpe bat izan zela.

1935ean zehar bi indarren izandako hausturak ez zuen atzera bueltarik izan. Calvo Sotelok, Donostian, 'Prefiero una España roja que rota' esaldia esan zuen. 1936ko otsailean hauteskundeak izan ziren, eta Fronte Popularrak (ezkerrak) irabazi zituen. Orduan Estatutua onartu zen, eta Gernikako Estatutua onartu zen.

- **'Ezkerrekoen Estatutua'**

1936an aldarrikatu zen, eta Jose Antonio Agirre eta Indalecio Prieto izan ziren pertsona nagusienak. Estatutu hau Bizkaian aldarrikatu zen Bizkaian estatu kolpeak harrapatu zuelako.

## **Euskal kultura II. Errepublikan**

II. Errepublikan Espainian gertatu bezala Euskal Herrian ere eztanda bat izan zen. Aitzol, Lauaxeta, Orixeta eta Lizardi izan ziren euskal kulturaren lau erreferente nagusiak.

Julian Zugazagoitia izan zen literatura eta errealismo sozialaren erreferenteetako bat.

## **Gerra Zibila Euskal Herrian**

1936ko hauteskundeen emaitzek garbi utzi zuten lau euskal probintzietan hainbat eta hainbat indar eta estrategia politiko zeudela.

Gipuzkoan eta Bizkaian, Errepublikarren alde zeuden gehiengoak, eta hori EAJ alderdiak eta Fronte Popularrak osatzen zuten. Araban, Nafarroan eta baita Gipuzkoako eta Bizkaiko landa inguru batzuetan Elkarte Tradizionalista zen nagusi.

## **Lehen euskal gobernuaren osaketa:**

Gerra Zibilaren hasierak eta Gipuzkoa erortzeak, EAJri, Errepublikarren gobernuan sartzeko aukera eman zion, eta EAJk lehen euskal gobernu autonomoa zuzendu zuen, Jose Antonio Aguirre lehendakari zela.

Lurraldearen bakantzeak, Euskal Herriari autonomia handiarekin jarduteko aukera eman zion, eta era berean, Euskadiko Herri Auzitegia sortu zuten.

### **Gerra Zibilarenaldiak**

#### *- Fronte gipuzkoarra:*

Lehenengo aldi hau gerra piztu zenetik lehen euskal gobernu edo Jaurlaritza sortu arte luzatu zen. Matxinatuen tropak Irun hartu zuten, eta Frantziarekin zuten muga itxi zuten; azkenik, Gipuzkoa Mola jeneralaren esku geratu zen eta horrenbestez, asaldatuaren tropek Bizkaian aurrera egin ahal izan zuten.

Gatazkaren hasierako une horretan, errepublikarren defentsa ezkertiarren esku zeuden Defentsa Batzarren (EAJ, Fronte Popularra eta CNTk osatua) ardurapean geratu zen.

#### *- Legutioren aurkako eraso:*

Gerraren bigarren aldian, botere politikoa eskuz aldatu zen: Defentsa Batzarretatik euskal gobernu edo Jaurlaritza osatu berrira. Aterioen tropek Bizkaia inguruan egiten zuten presioa zela eta, kontseilaritza horrek Legutio erasotzeko agindua eman zuen; baina erasoak porrot egin zuen.

#### *- Bilboren gainbehera:*

Hirugarren eta azken aldiz Bizkaiko lurretara mugatu zen.

Legution galdu ondoren, Euskal gobernuak edo Jaurlaritzak Bizkaiko lurral defendatzeko burdinazko gerriko ezaguna ezarri zuen.

Armada frankistak eraso egin zuen eta Durango, Otxandio eta Gernika erori ziren, eta ondoren Burdinazko Gerrikoari eraso egin zioten. Frontea desegiteko, Alejandro Goikoetxearen laguntza izan zuten nazionalak, defentsa sistema diseinatzen aritu zen gizona, beraz gune ahul guztiak primeran ezagutzen zituen. Horri guztiari esker sartu ziren nazionalak Bilbon.

Euskal Herria nazionalisten esku erori zenean, Jose Antonio Agirre lehendakariaren gobernuarekin batera erbestera joan ziren, Frantziara.

## TESTU IRUZKINA:

### La guerra civil en el País Vasco: ¿Un conflicto diferente?

(Santiago de Pablo)

Testu edo liburu iruzkina egiteko honako pausuak jarraitu behar dira:

- Sarrera (testuaren aurkezpena, nork, noiz nondik atera da testua)
- Laburpena (testuingurua, ideia nagusiak...)
- Iruzkin zientifikoa (kritika)

Testuak Euskadiko Gerra Zibilaren inguruan hitz egiten du, eta testuan aipatzen du Euskadin Gerra Zibila oso ezberdina izan zela, hau da, Fronte Popularra eta Fronte Nazionalak ez zuten indar bera izan, Euskadiko miliziek indar handia zuten, hemen gehienak Fronte Popularrekoak. Hala ere, EAJ eta ANVko jendea ere bazegoen Euskadin.

Euskadin ez zen Poumen gerrarik gertatu. EAJk paper neutroa hartu zuen, baina neutralitatea ez zen guztiz erreala eta azkenean errepublikarrekin bat egin zuen.

Errepublikarrak	Bando nazionala 'El movimiento'
<ul style="list-style-type: none"><li>- 'desorden'</li><li>- Antiklerikala</li><li>- Autonomia Estatutua</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- 'orden'</li><li>- Erlijioa</li><li>- Zentralista</li></ul>

↓

EAJ
-----

Erligioaz ari denean katolikoaren inguruan hitz egiten ari da, eta aipatzen du Euskadin erlijiosoaren barnean bi bando zeudela. Beraz, antiklerikalismoa zabaldu zen eliza gerraren alde azaldu zelako. Gainera, EAJ, PSOE, komunistak eta ANV ziren gobernuan zeudenak, eta hauek hainbat liskar izan zituzten.

Aipatzen dute hemen oasi baten antzeko bat eman zela ez zituztelako ez apaizik, ez mojik hil. Euskal oasian itsasontzi handi batzuk zeuden, non, herriko hainbat pertsona garrantzitsu atxilotu zituzten. Hemen bi espetxe itsasontzi zeuden, eta bertako ontzietan sartu ziren bertako kideak hilez. Beraz, euskal oasiak bere itzalak izan zituen.

Mateo Mujikak, Gasteizko gotzaina, EAJren hainbat hitzarmen izan zituen. Frankismo garaian gauzak ez ziren beltzak eta zuriak izan, hainbat arazo izan ziren.

Euskadiko lehen Gobernuko Lehendakaria Jose Antonio Agirre izan zen. Autonomi Estatutua onartu zen 1936an, eta behin hau onartuta Gobernu osatu zuten. Askatasun erlijioso baten aurrean zeuden errepublika laikoa zelako, eta jabetza pribatua zen. Garai honetan enpresa asko kolektibizatu egin ziren, hau da, langileen artean banatu ziren, eurak bihurtu ziren lurraldearen jabe.

Honakoa zen lehen euskal gobernuaren banaketa (bakarrik Bizkaian garatu zen, Araba eta Gipuzkoa frankismoaren menpe zegoelako):

- Lehendakaria: J.A. Agirre (EAJ)
- Sailburuak: EAJk 4, PSOEk 3, IR-k 1, PCEk 1 eta ANVk beste 1

Gerra Zibila hasi zenean tentsioa nabarmen handitu zen, eta Europako Estatu guztiek hitzarmen bat egin zuten, zeinetan, inork ez zuela babesik emango aipatu zuten. Sobiet Batasunak bai eman zien babesa.

Honakoa zen lehen euskal gobernuaren banaketa (bakarrik Bizkaian garatu zen, Araba eta Gipuzkoa frankismoaren menpe zegoelako):

- Lehendakaria: J.A. Agirre (EAJ)
- Sailburuak: EAJk 4, PSOEk 3, IR-k 1, PCEk 1 eta ANVk beste 1

Ezkerrak zuen indarrik handiena, baina garai honetan EAJk zuen gobernuan botererik handiena. Honek, hainbat puntu azpimarragarri adierazi zituen.

### **TESTUA:**

#### **‘El pacto de Santoña’**

1937rako Euskadin Gerra Zibila amaitu zen. Batzuek, Bizkaian, amore eman zuten eta beste batzuk Santanderrera joan ziren. Hau polemika bat zian zen errepublikak fronte asko zituelako eta ezin zuelako bere indarra leku batean kontzentratu. Hargatik, Agirrek hegazkinak eskatu zituen, eta Indalecio Prietok ez zuen ekintza hori onartu lurralde asko zeharkatu behar zituztelako. Beraz, Agirre haserretu egin zen, eta jeltzaleak traizionatuta sentitu ziren.

Hemen EAJk Euskadirentzat estatusa aldarrikatu nahi zuen, eta hau ekintza politiko bat izan zen. Internazionalki estatu gisa jokatzearabaki zuten. Denek errepublikarekiko zuten ideia ez zen berdina, eta honek arazoak ekarri zituen. EAJn ez negoziatzeko korrante hau zeukaten.

# FRANKISMOA

## LEHEN FRANKISMOA

1939an Espainian Gerra Zibila amaitu ondoren, diktadura militarreko ia berrogei urteko epealdi luzea etorri zen. Erregimenak luze iraun zuen, hainbat ezaugarri esker: frankismoaren barne aldaketa eta berrikusteak, egokitzapen gaitasun handia, erabateko kontrola eta zapalkuntza orokortua. Frankismoaren bilakaeran hainbat aldi bereiz daitezke; honako hiru epe hauek hain zuzen ere (1939-1975 / 1937-1975 / 1936-1975).

Gerra amaitutakoan, gizartea erabat lur-jota zegoen eta herritarren bizi baldintzak oso txarrak ziren; gosea zegoen, soldata baxuak zituzten eta lan baldintzak ez ziren egokiak. Hau gutxi balitz, gizartea bi zatitan banatuta zegoen ideologiaren ondorioz eta, beraz, barne-liskarrak zeuden, alderdi desberdinekoen arteko erlazioa oso txarra zen. Gerra Zibila nazionalak irabazi zuten, hauek zuten boterea Espainian eta hauek buru bakar esku utzi zuten botere guztia, Francisco Francoren esku, hain zuzen.

Honek, ia 40 urte iraun zituen diktadura ezarri zuen erabat totalitarioa eta faxista zena eta Espainiaren arorik beltzena izan zen. Gainera, aipatu hau izan dela Europako diktadurarik luzeena. Francok bere gain hartu zituen botere guztiak eta aldaketa sakonak egin zituen politikan, kulturean eta ekonomian batik bat. Indar politiko guztiak alderdi bakarrean batu zituen eta Erresumako Oinarrizko Legeak ezartzean, erregimena instituzionalizatu zen. Honen ondorioz, alde batetik, 1947an Espainia erregerik gabeko erresuma izendatu zuten Francok estatu buruzagitza hartuz. Bestetik, Autonomia guztiak desagertu eta estatu konfesionala eta zentralista ezarri zen. Gobernu frankista Falangistek, Militarrek, Katolikoek eta Monarkikoek osatzen zuten.

Aipatu beharra dago egun, jende askok ez du Frankismoa kondenatzen, askorentzat Frankismoa kondenatzea arazoak sortzea da. Duela bi egun, Senatuan Ciudadanosek eta PPK esan dute ez dutela Frankismoa kondenatuko.

### **Frankismoaren oinarriak:**

#### *- Oinarri ideologikoa:*

Frankismoak ez zuen printzipio egonkor eta egituraturik izan, beste iturri ideologiko batzuetatik zetozen ideia sortak laburtu zituen; esaterako, Falangearenak, Elizarenak eta Karlismoarenak, eta baita kanpoko erreferentziak ere, Francok hartuak eta berrinterpretatuak.

Erreferentzia horien artean, faxismoa dugu, eta hori oinarritzat hartuta asmatu zuen Francok titulu pertsonal bat: caudillo edo buruzagi.

Era berean, alderdi bakarrean, indar politiko guztiak batzeak ere izan zuen eraginik (FET – JONS), eta baita antikomunismoak ere, katolizismoaren kontra agertu zen ideologia eta mugimendua

#### *- Oinarri politikoa:*

Francoren erregimen politikoa, Erresumako Oinarrizko Legeak ezartzean, instituzionalizatu egin zen. Lege horiek 1938 eta 1967 urteetan egin ziren Konstituzio gisan. Sortutako estatuan, autonomia mota oro desagerrarazi zuten, eta administrazio bakarra finkatu. Hala, estatu zentralista eta akonfesionala lortu zuten.

Gobernu frankista osatu zuten gobernu sektoreak, falangistak, militarrek, katolikoak eta monarkikoak izan ziren.

- *Oinarri soziala:*

Frankismoak estatu kolpearen aldeko hainbat gizarte talderen laguntza jaso zuen: militarrena, apaizteriarena, hedapen handien eta ertainen jabeena, enpresa mundukoena, Iberiar penintsula erdiko nekazariena eta hiriko erdi mailako klasekoena.

### **Erregimen frankistaren hasierako urteak:**

Garai horrek hainbat faktore sorta bildu zituen: birrindutako herrialdea eraberritu behar zuten, sistema politiko berria egonkortu behar zuten, eta nazioarteko gertakarien eta gatazken arabera kanpo politika egin behar zuten.

### **Nazioarteko politika: bakantzea**

II. MGn Espainiak erakutsitako jarrerak argi utzi zuen erregimen frankistaren ahultasuna. Hasiera batean, Espainiak neutral azaldu zuen bere burua egoera ekonomikoa zela eta.

Baina 1940 erdialdean Francok elkarrizketak izan zituen alemaniarrekin eta italiarrekin, baina ez ziren adostasunera iritsi. 1941ean, Sobiet Batasuna inbaditu ondoren, Espainiak parte-hartzea erabaki eta tropak (Dibisio Urdina) bidali zituen, komunismoaren kontra eta alemaniarren alde borrokatzera. Geroaro, Espainiak jarrera aldatu zuen, eta Ardatzeko potentziei laguntzeari utzi zion. 1943an, Espainiak neutraltasun hitzarmena sinatu eta aliatuen alde agertu zen behin Mussolinik Italian behea jo zuenean eta AEBk blokeo ekonomikoaren mehatxua egin zuenean.

II.MG amaitu zenean Espainiaren jarrera politikoarekiko zalantzak zirela eta nazioarteko bakantzea agindu zitzaion. 1947an Gerra Hotza hasi zen, eta nazioarteko erkidegoen presioak amore eman zuen, eta Frankismoa mendeabaldeko blokeari hurbildu zitzaion lehenengo aldiz, antikomunismo erabakigarriari esker.

### **Barne politika: autarkia urteak**

Hasierako urte horietan, frankismoak estatu politika diktatoriala eta autarkia izaerako ekonomia politikoa ezarri zituen.

Ekonomia politikak bi ezaugarri nagusi izan zituen: batetik, estatuak sektore eta prozesu ekonomiko guztietan hartzen zuen esku, eta bestetik, autarkia izan zen nagusi.

### **LEHEN FRANKISMOA EUSKADIN**

Aipatu beharra dago Frankismoaren inguruan asko idatzi den arren, ez da asko ikertu. Adibidez, Gernikaren kasuan hildakoen kopuruaren inguruko hainbat interpretazio eta zifra aurki ditzakegu. Beraz, Santiago de Pablok dio garrantzitsua eta aberasgarria litzatekela II. Errepublika eta Gerra Zibilaz gain, Frankismoaren azken urteen inguruan ikertzea.

Frankismoaren Euskal Herrian 1937an hasi zen, Gerra Zibilean Nazionalak Bizkaia eta Gipuzkoa hartzean; horrela, ia 40 urtez iraungo zuen diktaduri eman zitzaion. Eratu zen estatu berria autoritarioa, antidemokratikoa, konfesionala eta zentralista izan zen, Nazional Katolizismoa oinarri ideologikotzat zuena. Botere guztia Francisco Francoren esku zegoen, eta alderdi politiko bakarra; FET-JONS. Gobernu honek militar, eliza, goi-mailako klase, eta nekazarien laguntza jaso zuen.

### **Diktadura ezartzea**

Lehen Frankismoaren ezaugarriak batzuk aipatzeko esan;

Lehen Frankismoak Euskadin homogeneizazio lauhoitza ekarri zuela; arlo politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturean hain zuzen ere.

- Arlo politikoaren lehentasunak erregimenaren inposatzea eta bermatzea ziren.
- Arlo sozialaren lehentasunak etsai politikoen suntsitzea eta disidentzia kontrolatzea ziren.
- Arlo ekonomikoaren lehentasuna autarkia. Hots, herrialde batek produktuak inportatzeari uko egin (edo zeharo murrizten) eta auto-hornikuntzaren aldeko politika egiten duenean, horri autarkia deritza. Besteak beste, erregimen faxistek erabiltzen ahalegindu ziren sistema ekonomikoa izan zen.
- Arlo kulturalaren lehentasunak homogeneitate ideologikoa eta erlijiosoa.

Politikari dagokionez, Frankoren erregimenaren ezarpena gainerako Estatuekin alderatuta ikaragarria izan zen. Datu zehatzik ez dagoen arren, errepresioa gogorra eta sistematikoa izan zen; hiltzerainoko zigorrak, erbesteratzeak, kartzelaratzeak, isunak eta edonolako zailtasunak ezarri zitzaizkien ezkerrekoei eta nazionalistei. Honek, Frankoren aurkakoak etxean eta familian geratzea eragin zuen, hala oharkabean pasako zirela uste zutelako. Nazionalistek jasandakoa anarkistek, komunistek eta sozialistek jasandakoa baino lasaiagoa izan zen, eta hiltzerainoko zigorrak ez betetzeaz gain, preso nazionalista guztiak 1943rako kalean zeuden. EAJren izaera katolikoak eragina izan zuen azken honetan.

Errepresio sozialak izan zuen bere lekua Frankoren diktaduraren garaian, eta honako puntu hauek nabarmendu ziren errepresio sozial hartan;

- Deuseztapena (aniquilamiento): Frankistek ez zuten beren ideia berak ez zituen inor ikusi nahi (horregatik, zen Diktadura bat). Beraz, ikusiezintasun edota ikusi nahi ez hori zela eta izua zabaltzea zuten helburu.
- Kontrol soziala: jendea kontrolatuta zeukaten beren helburua izua zabaltzea zelako, eta baita lortu ere. Jendeak ez zuen garaiaren inguruan hitzik egiten gertatuko zitzaienaren beldur zirelako.
- Enkoadraketa; ni herri batean sartuko naiz eta %10 fusilatuko ditut. Beraz, jendeak beldurra duenez eta kontrolatuta daudenez badaezpada ere geldirik geratuko dira.

Errepresio ekonomikoari dagokionez, diktaduraren garaian Euskadin ere gainerako Espainiar lurraldeetan bezala autarkia ezarri zen. Hots, herrialde batek produktuak inportatzeari uko egin (edo zeharo murrizten) eta auto-hornikuntzaren aldeko politika egiten duenean, horri autarkia deritza. Besteak beste, erregimen faxistek erabiltzen ahalegindu ziren sistema ekonomikoa izan zen.

Aurreko esparruez gain, errepresioak hezkuntzan, kulturean eta komunikabideetan eragin zuen. Komunikabideei dagokionez, garai hartan mugimendu antifrankistaren menpe egon ziren guztiak itxi

zituzten, eta euren ondasunak frankisten prentsaren esku geratu ziren. Adibidez, irrati emisora guztiak 'Radio Nacional de España' emititzera derrigortu zituzten.

Euskal kulturari dagokionez, diktaduran ezarri ziren hainbat neurrik kaltetua izan zen euskal kultura; nahiz eta, lege ofizial bat ez egin. Hots, euskara legez ez zegoen debekatuta baina erabiltzen zuen horren arabera zen debeku hori. Gainera, garai honetan esukararen aldeko manifestazio guztiak debekatuak izan ziren. Ez hezkuntzan, ez prentsan, ez edizioan ez zegoen esukararen inolako presentziarik, eta 40. hamarkadan euskaraz idatzi ziren 20 liburuak kleroak gai erlijiosoen inguruan idatzitakoak ziren.

Frankismo garaian agintean izan zirenean datu zehatzik ez dagoen arren, aipatu badaudela garrantzitsu izan daitezkeen hainbat datu. Euskal diputazio eta udaletan karlisten kopurua Espainiako gainerako herriena baina altuagoa zen, eta falangistena, aldiz, askoz baxuagoa.

Adibidez,

- Bizkaian 1949an;
    - o Alkateen %42 Revolución Españolako kide ziren
    - o %26 karlismoari lotuta zeuden
    - o %4 Falangeari
  - Gipuzkoan 1936 eta 1949 bitartean;
    - o Zinegotzien %48 tradizionalistak ziren
    - o %28 afiliatorik gabeak
    - o %7 eskuinekoak ziren
    - o %2,6 falangistak
40. hamarkadako lehen erdialdean karlistek Gipuzkoakoan zuten agintea galdu zuten; Diputazioaren kontrolaren eta Donostiako udalarenaren zati handi bat kasu.
- Araba
    - o Hasiera batean karlisten menpe zegoen, baina katoliko independente baten esku egotera pasa zen.

1943tik aurrera karlismo disdentea alde batera uzteari ekin zioten, karlisten memoria tradizionalismo frankista zela aldarrikatuz.

Garai honetan, politika egiteko aukera oso urria zen. Beraz, agintari zibilaren irudia beharrezkoa da sistemaren funtzionamendua ulertu ahala izateko; bere funtzioa bere probintziaren administrazioa, kultura eta gizartearen funtzionamendua kontrolatzea baita. 1948ra bitarte Agintaria (Gobernador) mugimenduaren agintari probintziala zen, eta bera zen kargu lokal guztiak hautatze zituena.

### **Frankoren aurkako mugimendua gerraostean**

Erregimena zailtasunei eta gerraosteko isolamenduari aurre egiten aritu izan zen 1955ean Espainiak Nazio Batuen Erakundearen (NBE) sartzeari arte. Beraz, EAEk eta Nafarroak zuten laguntzarekin erbesteko zein lurraldeko oposizio antifrankistak Diktadura lurraldean geratzea eragotzi nahi zuen. Kataluniarekin alderatuz EAEk Eusko Jaurlaritza erbestean mantentzea lortu zuen, eta honek oposizioan euskal alderdiak egotea ahalbidetu zuen. Eusko Jaurlaritzaren mantentzean garrantzitsuak ziren EAJren sendotasun organikoa, eta Jose Antonio Agirre lehendakariaren karisma eta

pertsonalitatea. Eusko Jaurlaritzaren prestigioaren zati handienetako batek Euskadiko gerraren amaierarekin izan zuen zerikusia, errefuxiatuei laguntzea lortu zutenean. Iparraldeko frontea erorri zenean 79.500 euskaldunek Frantziara alde egin behar zian zuten. Baina 1939an Frantzian zeuden euskal erbesteratuen kopuruak behera egin zuen EAJk erantzukizun politikorik ez zuten horien aberriratzea posible zela aipatu zuelako. Nafarroan saiakerak egin ziren arren, hauek ez zuten jarraipenik izan.

Agirrerren Gobernuak agintean jarraitu bazuen ere, honek ez zuen 1939 eta 1960an bitartean erbestean zeudenen egoera hobetu. Gainera, arazoa 1939an EAJk erbestetan zeudenei esuakl nazionalismoa definitzea eskatutakoan etorri zen. Erbestean EAJk estrategia ia autonomikoa babestu zuen, bai Britainia Handitik, bai Frantziatik baita Ameriketatik ere.

Munduko gatazkan zehar euskaldunek aliatuekin izan zuten kolaborazioak espioitza lanak izan zituen oinarri 'Red Comète' kasu. Zeinak, aliatuei Bidasoatik alde egiten laguntzen zien, eta 1939an euskal errefuxiatuak Frantziako ejertzitoan lanean jarri nahi zituen, eta 1940an errefuxiatu gehienak Gurseko internamentu esparruan zeuden. Horrez gain, 'Euzko Naia' izeneko erakundea jarri zuten martxan. Azken batean, II. Mundu Gerran Euskadik izan zuen parte hartze zuten bakarra Gernikako Bonbardaketa izan zen. Nahiz eta, EAJko kide batzuek Frantzian naziei laguntzea pentsatu zuten.

Azken estrategia honen puntu garrantzitsuenetako bat 'informazioaren euskal Zerbitzuak' (Servicios vascos de información) izan ziren; zeinak, Luis Alavaren sarearekin zerikusia izan zuten. Baina 1940 eta 1941 bitartean desagertu egin ziren Alemaniak Paris okupatu zuenean, naziek polizia frankistari taldearen informazioa pasatzea lortu zutenean. Euskadiz eta Frantziatz gain, Zerbitzuak Madrilan eta Latinoamerikan ere egin zuen lan, ipar-amerikarrekin kolaboratu zuten orduan; Argentina, Kolonbia, Panama, Venezuela eta Dominikar Errepublikarekin kasu.

EAJ Gobernuan zegoela (J. A. Aguirre lehendakari), erbestearen lehen urteetan hain zuten ere, ezkerreko alderdiek, sozialistek eta komunistek oso aukera gutxi izan zituzten, eta honako zen garai honetako alderdien egoera:

- PSOE (Partido Socialista Obrero Español): oso bereizita zegoen Espainian baita Euskal Herri osoan ere, hiru organo zituen momentu berean lanean ari zirenak. Gainera, gatazkarik handiena Mexikon (1943an) izan zen, non, Indalecio Prietoren jarraitzaileek Gobernuarekin zuten lotura eragozteko proposatu zuten bitartean; Santiago Aznarrek Aguirrerekin kolaboratzea egoki ikusi zuen.
  - PCE (Partido Comunista): oso indar gutxi zuen Euskal Herrian eta Nafarroan eta errepresio gogorra jazo zuena. Diktadura osoan zehar mantentzea lortu zuten, baina makiek (opcion guerrillera comunista de la posguerra) ez zioten Euskadiri eragin.
  - ANV (Acción Nacionalista Vasca)
  - Izquierda Republicana
  - Unión Republicana
- Eusko Jaurlaritzan zuten errepresentazioa mantendu zuten, eta Hego Ameriketan erakunde bat zuten; afiliazio ia guztiak galdu zituzten. Lurraldean ez zuten inolako indarrik.

1945eko martxoan, gerra amaitzera zihoala, euskal alderdi eta sindikatu guztiak Baionako Hitzarmena sinatu zuten; non, Errepublikaren, Estatutuaren eta Gobernu autonomoaren alde azaldu ziren. Honek, errepublika legezkoa izan zedin lagundu nahi zuen. Irujo (Garai honetako Eusko Jaurlaritzako

sailburuak) erbesteko Gobernu errepublikarren parte izatera pasa zen. 1946an, Aguirrek bere Gobernua eraberritu zuen, zeina 1936ko alderdi berdinek osatzen zuten, hau da, EAJ, PSOE, ANV, PCE, Izquierda Republicana eta Union Republicanak.

Egoerak onera egitearekin batera euskal oposizio antifrankistak, 1945etik aurrera, bere ekintza garrantzitsuenak burutu zituen. 1947eko erreferendun frankistaren abstentzioaz gain, hainbat propaganda ekintza burutu ziren; 1947eko maiatzeko greba orokorrak eta 1951ko apiril eta maiatzeko greba orokorrak.

1947 eta 1951ko greba orokorrak arrakastatsuak izan zirenez erregimena grebalarien eta hainbat enpresabururen aurka egitera behartuta zegoen. 1951ko grebak garaipen pirrikoa izan zuen, ez baitzuten erregimena arriskuan jarriko zukeen adinako mugimendurik lortu. Diktadurak hamabost urte zeramatzan oposizio antifrankistako kideak nekatzen hasi ziren bai arrazoi politikoengatik baita beste hainbat arrazoiengatik ere; arrazoi familiar, profesional eta ekonomikoak kasu. Honek, erbesteko hainbaten etorrera ekarri zuen, eta 50. Hamarkadan oposizioak izan zuen krisiaren erakusleetakoa bat zian zen. Horrez gain, Polizia internazionalak ere zerikusi nabarmena izan zuen euskal oposizioaren krisian.

Ordura arte Franko buru zen Espainia aislatuta zegoen arren, Frankok Estatu Batuekin zein Vatikanorekin harremanak hasi zituen. Honek, 1953an Vatikanorekin konkordatu bat izatea ahalbidetu zuen, eta ekintza hauen ondorio da 1955ean Espainia NBE-n sartu izana. Elkartze honetan garrantzitsua izan zen 1948an PCE Eusko Jaurlaritzatik bota izana; baina ez zuten aliatuekin arazorik izan ipar-amerikarrak babesten jarraitu zutelako. Hau zela eta, demokraziaren nahia eta Gobernua erbestean mantentzeko nahiak aurrera egin zezan Aguirre, EAJ eta Eusko Jaurlaritzaren aukera bakarra Frankoren Diktaduraren amaiera itxarotea zen. Baina krisiaren puntu garrantzitsuetako bat, 1951n, Frantziak Eusko Jaurlaritzari bere Parisko egoitza kendu eta frankoren Espainiari eman izana izan zen.

Aurrekoak Indalecio Prietok 1947an aurrera eramanean zuen estrategiarekin bat egin zuen. Hots, berak Monarkia demokratikoari atea zabaldu zion erantzun ona izango zuelakoan; baina erbestean zeuden alderdiak banatzea ekarri zuen, baita PSOE eta EAJ ere (Telesforo Monzón izan zen Monarkia onartu zuenetako bat).

Hemendik aurrera frankismoaren aurkako euskal estrategia krisian sartu zen. Alderdi batzuek aldaketak egin zituzten, eta garai honetan ez ziren frankismoaren aurkako ekintzak burutu. EAJ izan zen arazo gutxien izan zituena, eta ondorioz, Aguirrek 'Movimiento Europeo' eta 'Internacional Democrata Cristianaren' sortzean parte hartu zuen.

1956an, Parisen, Munduko Euskal Kongresua ospatu zen, zeina Jose Antonio Aguirrek bultzatu zuen, eta gobernu autonomoaren 20. urteurrena ospatzea zuen helburu. Parte hartzea zabala izan zen, eta euskal oposizioko alderdi guztiek hartu zuten parte. Jada ETA lanean ari zen, euskal nazionalismoaren eszizio garrantzitsuena izan zena. Euskal antifrankismoaren epe berriaren ekintza garrantzitsuenetako bat Jose Antonio Aguirreren heriotza (1960ko martxoan) izan zen.<sup>3</sup>

---

<sup>3</sup> De Pablo, Santiago. Capitulo III – *La Dictadura Franquista y el exilio*.

## FRANKISMOA 50. HAMARKADAN

### (ERREGIMENA SENDOTZEA ETA BAKANTZEAREN AMAIERA)

#### **Nazioarteko testuingurua:**

Garai honetan, egonkortu egin zen erregimen frankista. Nazioartean, Gerra Hotza zebilen, eta, bertan, frankismoak ez zuen hainbesteko presiorik izan, batez ere, bere militantzia antikomunista zela eta. Horren adibide dira 1948an muga frantsesa berriz ere ireki zutela, eta Europako hainbat potentziarekin merkataritza hitzarmen batzuk egin zituztela. Beste gertakari garrantzitsu bat Espainiak Maroko espainiarraren Babesetzari uko egin ziola izan zen, 1956an.

Hala ere, beste bi izan ziren erregimen nazioartean egonkortu eta onartzeko gertatu ziren gertakaririk garrantzitsuenak:

- Vatikanoarekin Konkordatua sinatzea.

Frankori behar zuen zilegitasun morala eta Vatikanoaren eta nazioartearen onarpena ekarri zion. Trukean, eliza katolikoak areagotu egin zuen erregimenean zuen eragina, eta ordezkariak handiagoa izan zuen erakundeetan. Era berean, zuzenbidean eta irakaskuntzan, eskumenak areagotu zituen, eta Eliza zergetatik salbuetsirik geratzea lortu zuen.

- AEBekin sinaturiko hitzarmenak.

AEBekin sinaturiko hitzarmenek, ikuspuntu militarari begira, Espainiak kokapen estrategikoa zuen antikomunismoa defendatzeko, eta AEBek beren base militarrek lurralde espainiarrean ezartzeko baimena negoziatu zuten hitzarmenetan; hain zuen, Rotan, Torrejonon, Zaragozan eta Moronen. Haatik, ez zuen erantzukizunik hartu lurralde hori defendatzeko. Frankok, aldiz, estatubatuarrek erregimena onartzea lortu zuen, baita merkataritza harreman txiki batzuk ezartzea ere. Hitzarmen horiei esker, Espainiak NBE eta UNESCOn sartzeko erraztasunak izan zituen, eta lurraldeak behin betiko nazioarteko erkidegoan sartzeko bermea lortu zuen.

#### **Barne politika:**

Irekitzearen aldeko joerak barne politikan ere izan zuen eraginik. Aldi horretan, Frankoren gobernuak oreka mantendu zuen babesten zuten lau taldeen artean: falangistak, militarrek, katolikoak eta monarkikoak. Hartara, lau taldeen arteko ika-mikak sahiesten zituen, eta bata bestearen gainetik jartzeko arriskua desagerrarazi, baita beretzat mehatxu izatekoa ere.

Lehen urteetan hezkuntza alorrean irekitze eta liberalizazio zantzu batzuk jarri zituzten praktikan. 1951tik aurrera, Hezkuntza saileko buru izan zen Juan Ruiz Gimenezek Unibertsitatea apur bat modernizatu zuen. Ondorioz, erbesteratutako hainbat intelektual itzuli ziren, eta ikasle mugimendu bat sortu zuten.

Ikasle talde horrek eztabaida gune bat eta elkarte bat sortzeko proposamena egin zuen, eta oposizio politikoak erabakiak babestu zituen arren, sektore kontserbadoreenak kontrako iritzia adierazi zuen. Hargatik, 1956ko otsailean hainbat gorabehera gertatu ziren, eta polizia neurrien bidez konpondu behar izan zituzten istiluak. Halaber, irekitzearen alde zeuden ministroak ordezkatu zituzten.

Gorabehera hauen ondoren, erregimena sektore kontserbadoreenaren menpe geratu zen, baina oposizioak berriro antolatzeari ekin zion.

## **Ekonomia:**

Estatuaren parte hartetik liberalizazio gero eta handiago baterako pausoa eman zen.

- Atzerriko lehen inbertsioak eta inportazioak egin ziren. Alde horretatik, estatubatuarren laguntza ekonomikoa funtsezkoa izan zen, txiki samarra izan bazen ere.
- Produktuen prezioan eta merkataritzan askatasuna ezarri zuten. Neurri hori abian jartzean, prezioek gora egin zuten, eta ondorioz, erregimenaren aurkako lehen greba orokorra egin zen.
- Kanpo merkataritzaren liberalizazioak ekonomia berritzea eta hedatzea ekarri zuen, nahiz eta horren truke merkataritza balantzara defizita ekarri.

Neurri hauekin ekonomiak alde batera utzi ahal izan zuen ez aurrea ez atzera egoera, eta pixka bat garatzen hasi zen. Industria sektorea izan zen ondoen atera zena, eta lehen aldiz nekazaritza sektorea gailentzea lortu zuen. Soroak mekanizatu zituzten, inportatutako ongarri eta pentsuak erabiltzen hasi ziren eta landutako zein ureztatutako lurraldeak hazi egin ziren. Horregatik, nekazaritza sektoreak ere gora egin zuen, baina industria eta zerbitzuen sektoreak bezain beste.

Ekonomiaren bide berri honek hainbat aldaketa ekarri zituen, batik bat, gizartera begirakoak, langileak sektore batetik bestera mugitu baitziren.

## **FRANKISMOA 60. HAMARKADAN**

1957an, gobernu berriak ekonomia egonkortzeko planak abian jarri zituen, eta 60ko hamarkadaren amaierara arte iraun zuten. Aldi horretako ezaugarri bereizgarriena ekonomiaren garapena eta hazkundera izan zen.

### **Egonkortze eta Garapen Planak**

1956an hainbat arazo zeuden, eta horrek guztiak agerian utzi zituen sistema autarkikoaren eraginkortasunik eza eta liberalizazio handiagoaren beharra; izan ere, aurreko aldiko irekitze zantzuak ez ziren nahikoa izan.

Neurri hauen sortzaileak teknokraten goberbu sektorekoak izan ziren, eta Opus Deiri lotutako pertsonak ziren. Munduko Baankuaren aholkuei jarraituz, 1959an, Egonkortze Plana (Plan de estabilización) osatu eta jarri zuten abian. Honekin, ekonomia asko hazi zen; hala ere, jendearen soldatak oso baxuak ziren, eta honek jende asko egoera kaxkarretan bizitzea ekarri zuen. Adibidez, Bilbon jendeak etxebizitzarik izateko dirurik ez zuenez txaboletan bizi ziren.

1964an, 'Bakean 25 urte' kanpaina, Franko gizartearen aurrean azaldu zen bakea bermatzen zuenaren ustetan.

### **Garapen ekonomikoa**

Hainbat eta hainbat faktorek eragin zuten garapen ekonomiakoan ondorengoak kasu. Manuel Fraga turismo ministro izendatu zuten, eta honek turismoaren hasiera ekarri zuen. Turismoak eta erregimenaren irekipenak gazteen mentalitatea aldatzea ekarri zuten.

Oposizio antifrankista indartu egin zen, eta beren taktikak belaunaldi aldaketa bat ekarri zuen. Hots, II. Errepublikan eta Gerra Zibilean parte-hartu zutenen familietako asko bertan sartu ziren, nahiz eta batzuk oraindik ere bertan jarraitu. Egoera guzti honek ETAREN sorrera ekarri zuen.

### **ETA (Euskadi ta Askatasuna) – 1959/2011**

EAJ erbestean zegoen, eta bertako gazte talde batek frankismoaren aurka egin nahian ETA izeneko talde armatua sortu zen 1959an. Bestalde, nazioartean hainbat talde iraultzaile agertu ziren, tartean 'Brigadas Rojas Italian eta 'IRA' Irlandan.

*'Bilbao, 31 de julio de 1959. Un grupo de estudiantes radicales desidentes del colectivo EKIN (nacido en 1952 para reaccionar contra la pasividad y el acomodo que en su opinión padecía el PNV) funda Euskadi ta Askatasuna. Es el nacimiento de ETA, una alternativa ideológica a los postulados del PNV con cuatro pilares básicos: la defensa del euskera, el etnicismo (como fase superadora del racismo), el antiespañolismo y la dependencia de Euskal Herria: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa' (TESTUA)*

- Sabino Aranaren ustetan, Euskal Herria bai Frantziarekin eta Españarekin gerra konstante batean egon ziren. Beraz, talde hau horren aurka egiteko sortu zen.
- ETAK ez dio kasurik egingo Sabino Aranari beren ideiek ez zituztelako berarenak babesten.
- ETAK Euskadi deitu beharrean Euskal Herria deitu du.
- ETAK ez du Iparraldearen independentzia defendatu (Sara Hidalgo)

ETAREN filosofia honakoa zen: akzioa, erreakzioa eta akzioa. Eurek akzio bat egiten zuten, eta ondoren biktimek erreakzio bat jasoko dute. Orduan, ETAK herrialde osoak armekin erantzungo zuela uste zuten ETAKO kideek.

Hasiera batean aurrera eramaten ziren ekintzak ez ziren oso gogorrak, baina 68an batzuk biolentziaren bidea hartu behar zutela aipatu zuten.

1968ra bitartean ETAK ez du erahilketarik egingo. Lehen erahilketa 1968an egin zuten Jose Pardines Guardia Zibilarena hain zuzen ere. Txabi Etxebarrieta izan zen Guardia Zibila hil zuena. Handik ordu batzuetara Ordizia inguruan Guardia Zibilak Txabarrieta hil zuen.

Trantsizioan akzioak areagotuko dira, batez ere Guardia Zibila eta Poliziaren aurka.

Diktadura ia 40 urtetan jasan eta gero, oposizio antifrankistan zeuden kide gehienek beren akzioak utzi zituzten (ulertzen baitzuten jada ez zutela zereginik, biolentzia erabiltzeak ez zuelako zentzurik). Baina ETAK hiltzen jarraitzen zuten.

1973an ETAK Carrero Blanco hil zuen, eta hau izan zen ETAREN ekintzarik esanguratsuenetakoa. ETAK pentsatzen zuen bere ekintzek EHri independentzia ekarriko ziotela. Hemendik aurrera, ETAK bere ekintza armatua utzi partez ekintza areagotu zituen.

Talde antifrankista bat bazen ere, bere hilketa gehienak demokrazian izan ziren.

TABLA 19  
VÍCTIMAS MORTALES DEL TERRORISMO POR PERIODO  
Y AÑO

ETAPA	AÑO	VÍCTIMAS MORTALES
Dictadura	1968	2
	1969	1
	1972	1
	1973	6
	1974	19
Transición	1975	16
	1976	19
	1977	12
	1978	69
	1979	85
Consolidación democrática	1980	118
	1981	33
	1982	41
	1983	45
	1984	42
"Socialización del sufrimiento"	1985	48
	1986	44
	1987	53
	1988	19
	1989	19
	1990	25
	1991	45
	1992	25
	1993	14
	1994	13
	1995	16
	1996	5
	1997	13
	1998	6
	2000	23
	2001	15
	2002	5
	2003	3
	2006	2
	2007	2
2008	4	
2009	3	
2010	1	

FUENTE: ELABORACION PROPIA.

150

Taula: Raúl Lopez: *Informe Foronda*, 2015

1978 eta 1981 bitartean 'Berun urteetan' izan ziren ETaren hilketarik gehienak, 305 hain zuzen ere. Gernikako Estatutuaren negoziazioak hasi eta Estatutua onartu bitartean, eman ziren ETaren hilketarik nabarmenenak hauek uste zutelako Estatutuak arazoak ekarriko zizkiela. 1995etik aurrera hildako gutxiago egon arren, biktimen kopuruak gora egin zuen mehatxu kopuruak nabarmen egin zuelako gora.

GAL (Grupos Antiterroristas de Liberación) talde terrorista bat zen, zeina, ETakideen aurka joaten ziren. Teorikoki GAL ez zen talde paramilitarra, eta 'cloacas del estado' (Parlamentuak biolentzia poliziari uzten dio, eta aurrera eramaten diren ekintzak Parlamentutik pasa behar dira. Askotan Estatu guztiek dituzte espiak, zeinak, legearentzat lan egiten duten baina justifikatzeko beharrik ez dutenak ziren) izenekoei esker sortu ziren.

Frantziak ez zuen onartu Espainia demokrazia bat zela, beraz Frantziak asilo politikoa ematen zieten ETakideei. Orduan, GALEko kideak Frantzian sartu ziren ilegalki, eta kide asko eta asko sekuestratu zituzten; horien artean Lasa eta Zabala. Gainera, kide horietako asko ez ziren errudunak. Beraz, garai honetan GALEk 78 pertsona hil zituzten. GALEn ekintzak kaltegarriak izan ziren ETaren aurkako kanpainak egiterako garaian.

1988an Ajuria Eneako hitzarmenak sinatu zen, eta bertan, hainbat alderdi politiko ETaren aurka agertu ziren; horien artean, EAJ, PSOE, EE, EA, AP eta CDS. Hauek itun bat sinatu zuten, non alderdi guzti hauek ETaren aurka jarri ziren, HB kanpo geratu zenez honek ondoren etorritakoa markatuko du. Hau oso garrantzitsua izan zen hemendik ETaren deslegitimazioarekin pausoak eman zirelako.

Kontuan izan, orain artea ETak nor hiltzen zuen aipatu dugula, baina horietako asko frankistak ziren. Hala ere, biktimen ebaluzioa ETaren eboluzioarekin batera eman da. 1986an 'Gesto por la Paz' sortu zen, eta hauek kontzentrazioak egiten zituzten biktimen alde. 1988ko hitzarmen hauek ETarentzat eta HBrentzat inpaktu bat izan ziren

1992an Bidarten (Lapurdi) ETako nagusiak bilduta zeudela txibatazo bat egon zen, eta ETako nagusiek indarra galdu zuten. Orduz geroztik, ETak ez zuen lehen zuen kupula izatea lortu, eta honek ahulezia bat ekarri zuen.

1995ean, Bidarteko ekintza, eta Ajuria Eneako hitzamenaren ondorioz estrategia berriak jarri zituzten martxan. Hau 'estrategia del sufrimiento' izan zen, eta HB zen estrategia onen buru.

'Estrategia del sufrimiento', Oldartzen txostenean ageri dena, estrategia onen helburua mehatxua zabaltzea zen. HBk bere politika ekintzak ekintza armatuekin konbinatzen zituen, eta kide asko ez ziren arren, asko ez ziren ETako kideak. Honek arazo asko ekarri zituen jendeak ez zuelako bere burua argitara atera nahi.

## **Euskal gizartea**

Hasieran Frankoren aurka bakarrik bazeuden ere, Trantsizioan aurrera jarraitu zuten. ETak hainbat frankista hil zituen, baina denbora aurrera joan ahala hainbat Guardia Zibil hil zituen edota hainbat inozente.

PCE izan zen ETaren aurka jarri zen lehen alderdia Portugaleten. Bertan eman zen ETaren aurkako lehen manifestazioa PCEk uste zuelako bialentzia ez zela bidea.

UCD eta PSOEko kideak hiltzen hasi zirenean gauzak aldatzen hasi ziren poliki-poliki. 1984an Enrique Casas sozialista hil zuten Donstian. 1995ean Miguel Anjel Blanco hil zuten Ermuan, eta eztanda sozial bat gertatu zen. Hemen, ETak Blanco bahitu zuen Gobernuarekin hitzarmen bat (Presoak 48 ordutan Euskal Herriratzea) sortzeko asmoz, baina ez zen inolako hitzarmenik eman eta Blanco Lasarten azaldu zen hilda. Hemendik aurrera ETak laguntza eskasa zuen.

HBren ilegalizazioa etorri zen, eta honek diru falta ekarri zuenez ETA desagertu egin zen.

ETaren amaieraren arrazoiak: HBren ilegalizazioa, Frantzia ETaren aurka jartze hasi zen, teknologiaren ezagutza falta.